Normalean, fora atal bakoitzaren erdian egoten da, presoen gelez eta horma altuez inguratuta. Presoei aukera ematen zaie foretan kopuru zehaztuetan sartzeko. Urteetan zehar presoek izan dituzten greba eta ihes egiteko saiakerak direla eta, Naqab-eko espetxeako IPSak soilik saileko biztanleen erdiari ematen dio aukera ematen une jakin batean foretan sartzeko. Hori dela eta, presoak koordinatu egin behar dira foretara taldean joateko. Gelen sekzioan, gela handi baten antzekoa da fora, eremu erdia xaflarik gabeko saretxoz estalia dago, eta ez du eguzkiaren argia blokeatzen; denden sekzioan, berriz, foraren sabaia alanbre-sare txiki batek estaltzen du, presoek zerua ikustea oztopatuz.

Espetxean presoak ezin du ezer ikusi: sekzioen barruan, horma altuak direla eta, ez da ezer ikusten; eta geletan sartzen zarenean, kanpoko mundutik erabat isolatua zaudela sentitzen zara.

Salah Husain

Dutxak

Esan bezala, espetxeako azpiatalek ez dute banaketa bera. Batzuek barruko dutxak dituzte, beste batzuek kanpoko dutxak. Hala ere, Naqabeko espetxeako preso palestinarrek komunak eta dutxak garbi edukitzeko ordutegia antolatu dute. Komunak egunean birritan eta dutxak egunean behin garbitzea erabaki dute, baita ostiralero biak ala biak garbitzea ere.

Lur gogorra

Basamortuan dagoenez, Naqab espetxea kiskalgarria izan daiteke egunez, eta oso hotza gauez. Intsektu eta narrastien izurrite erregularrak daude. Salah Husain presoak azaltzen duenez: "Klima-zailtasunak gorabehera, potentzia okupatzaileak Negev biziberritzeko misioa hartu zuen duela hiru bat urte. Horretarako, barazki- eta fruta-hondakinak ekartzen eta lurrean uzten hasi zen, Negeveko basamortuaren lurzorua aldatzeko. Ahalegin horren ondorioz, kartzela soro bihurtu da intsektuentzat, hala nola, labezomorrontzat eta eulientzat, eta infernu bihurtu da, beraz, presoentzat. Hezetasuna eta basamortuko hondakinak zirela eta, espetxeako atmosfera usain arraroz beteta zegoen. Horrek are gehiago zailtzen du presoaren bizitza, batez ere arazoa konpontzeko intsektizidarik ez dutelako".

Oro har, potentzia okupatzaileak presoak euren jatorrizkoak ez diren testuinguru geografikoetan atxikitzen ditu. Horrela, zailagoa egiten zaie kartzela ingurunera egokitzea. Sarritan, basamortuko kartzeletan (adibidez, Naqab espetxean) edo alderantziz, eskualde menditsuetako presoak atxikitzen ditu. Taktika horiek ezegonkortu egiten dute presoaren barne-erritmoa, pertsonen euren bizi ingurunearen arabera egokitzen baitute beren erritmoa. Zentzu psikologikoan, Fathi Fleifel Doktoreak azpimarratu du ingurune ezezagun batera nahitaez joateak pertsona baten barne-sistema aztoratuko lukeela, eta, beraz, haren orekari eta egokitze gaitasunari eragingo liekeela. Israelgo okupazioaren lekualdaketa ez da mugatzen presoak beren ohiko eremuetatik aldatzera eta okupazio-espetxeetan askatasunik gabe uztera; gela batetik besterako aldaketak ere baliatzen ditu presoak zigortzeko tresna gisa. Derrigorrezko lekualdatze bakoitzak are gehiago ezegonkortzen du presoaren gizarte-zirkulua. Presoa behartuta dago berriro egokitzen eta gizarte-harremanen sare berri bat ezartzera.

Kartzelaratzeta de faktoko errealitate gisa errefusatzeko dugun arren, haren alderdietara, semantikara eta semiotikara ohitzen gara. Denborarekin, gela bat zena zaindu beharreko zure "gela" bihurtzen da. Adibidez, preso guztiek adierazten dute beren atalaren falta sumatzen dutela beste zentro batera eramaten dituztenean edo okupazio-epaitegietara eramaten dituztenean. "Azken geldialdia" eta irudimenezko babesa direla diote. Sarritan tarwiha hitza erabiltzen dute ("etxera itzultzea" esan nahi du arabieraz) beren sekziara itzultzeko-ez beren etxe errealetera itzultzeko.

Layan Kayed²⁵

Bizitza soziala espetxean

Naqaben IPSak ez du espaziorik uzten presoek bizitza sozial normala izan dezaten. Ziegak egunean bost aldiz baino gehiagotan ikuskatzeak, izan kontaketa egiteko nahiz leihoak kolpatu eta

ikuskatzeko, presoen eguneroko bizitza eragozten du. Edozein asaldura-motak eragin dezake IPSak berehala sarekada bat abiaraztea ziegetan.

Okupatzailearen presentzia denbora guztian sentitzeak zelatan jartzen du presoak gau eta egun. Gogo-aldarte horrek eragin nabarmena du presoaren osasun mentalean.

Salah Husain

Bisita familiarren aurreko uneetako berotasuna

Israelgo okupazio-espetze askotan presoen eta kanpo-munduaren arteko lotura bakarra familia-bisitak dira. Bisitek berrogeita bost minutu baino gehiago irauten ez duten arren eta hilean behin egiten diren arren, presoek denbora eta ahalegin handia ematen dute horiek prestatzen. Maite dituzten pertsonen aurrean itxura ona izaten saiatzen dira, arropa politarekin konpontzen, orrazten eta janzen. Alde horretatik, Bilal Odeh-ek hau dio: "Denborak presoarentzat hegan egiten du maite dituen pertsonak bisitatzen dituen bitartean. Berrogeita bost minutuak bost balira bezala pasatzen dira hegan. Maite ditugunak ikusi ondoren, gure artean hitz egiteko prest gaude, baina laster leku lasai batera joateko gogo sentitzen dugu, bisita, xehetasun txikiak barne, zinta grabatu bat bailitza mantentzeko."

Espetze barruko oporrak

Preso palestinarrek saiatzen dira kanpoko bizitzarekin harremanetan jartzen eta barruan bizi duten monotonia hausten. Jaiak ospatzea eta horietan zehar praktika eredu jakin bat izatea da kanpoko munduarekin duten lotura mantentzeko modurik errazenetako bat. Adibidez, Eid egunean, atal bakoitzeko ordezkariak foretara joaten dira, elkar agurtzeko, eta ondoren espetxeke kideak agurtzen dituzte. Eid eguneko opari eta gozokiak ere trukatzeko dituzte gelaxketan; hori bera, ordea, IPSak debekatu egiten du foretan. Murrizketa horrek argi uzten du zenbateraino ahalegintzen den espetxe-sistema hau presoak bortxatzen eta horiei tratu txarrak ematen.

"80 cm-ko zabalerako Brosh batean lo egitea ohitura bihurtzen da"

Bere ziegetan, presoek gauza gutxi dute. Ziegetan, batez ere borsheak, arropetarako apalategi batzuk, sukaldeko plaka bat eta beste objektu pertsonal batzuk pilatzen dira. Espazio gisa, borsheak presoen bizitzaren zati garrantzitsu bat dira barrualdean. Espazio mugatua dela eta, presoek beren denboraren zati handi bat igarotzen dute beren borsheetan. Beren ohean irakurtzen, idazten eta, batzuetan, jaten duten leku bihurtzen dira, batez ere ziega estuetan, non presoak ezin baitira aldi berean mugitu. Naqab-eko espetxean, borsheak 80 x 180 cm inguruko burdinazko literak dira. Xehetasun horiek garrantzia gutxikoak diruditen arren kanpoan denarentzat, berebizikoa dute presoarentzat, bere bizitzaren oinarria baitira. Kartzelaratzearen esperientzia ez da presoak askatzearekin amaitzen. Kartzelako bizitzaren aspektu ugari larruazalean iltzaturik geratzen dira, eta kartzelatik atera eta urte batzuetara bertan jarraitzen dute, goiz esnatzea barne, nahiz eta horretarako beharrik ez izan. Horri dagokionez, Raafat Maarouf-ek dio: "Ohitura batzuk hilobiraino daramatza presoak. Grabatuta geratu zaidan xehetasunetako bat da mugitu gabe lo egiten dudala. Hamabost urtez 80 cm x 180 cm-ko ohe batean lo egin dut, eta gaur arte leku berean egiten dut lo, nahiz eta orain nire ohea handiagoa izan".

Kartzelan, kentzen dizuten guztiak balio handiagoa hartzen du. Adibidez, presoek ez zaie uzten josteko orratzak, pizgailuak edo zigarroak erabiltzen...-mota jakin batekoak izan ezik. Horren ondorioz, presoek bulkada bat garatzen dute artikulu horiek lortzeko. Presoetako batek, batez ere ingesatu berriek, horrelako artikuluren bat eskuratzea lortzen duenean, kartzelan urteak daramatzaten presoek altxor gisa ikusten dute.

Salah Husain

Maskotak izatea eta dilistak eritea: Barruan denboraz jolasteko moduak

Naqab espetxea Israelgo okupazio-espetxeen artean pribatutasun handiena duena da. Kanpalekuak, karabanak eta hormigoizko unitateak barne hartuz, Naqabeko espetxearen kokapenak nolabaiteko intimitatea ematen die presoek, bertan kotoia edo oihalezko zatiak erabiliz lekaleak edo antzeko landareak landatu edo bertan diren animalietako bat maskota gisa edukitzeko aukera dute.

Esperientzia horiei esker, espetxeke hormak gaintitzen ditu presoak, eta lotura errazak sortzen ditu kanpoko bizitza arruntarekin.

Bilal Odeh-ek adierazi zuenez, Naqab espetxeko karabanen sailean egon zen bitartean, katu bat hazi ahal izan zuen behin. Bilal-ek maskota zaindu zuen jaio zenetik urtebete bete zuen arte, beste atal batera eraman aurretik.

"Denborarekin, katua eta bion artean lotura estua garatu genuen. Ohean egiten zuen lo, nire ondoan. Ni arduratzen nintzen jaten emateaz eta garbitzeaz. Katutxo honek barealdi tarte bat eman zidan", dio Bilal-ek.

Espetxeko kamera: Une ahaztezinak

Oso gutxitan bada ere, IPSak presoek familiarekin argazkiak ateratzeko aukera ematen die, espetxeko hormak atzeko paisaia bihurtuz. Hala, presoek segundo batzuk dituzte maite dituzten pertsonekin kristalezko xafra lodiaren mugapenik gabe elkartzeko, haiekin argazkiak ateratzeko. IPSk exijitzen du presoak kondenatuta egon dadila bere amarekin, aitarekin edo biekin argazkia ateratzeko, eta kasu gutxi batzuetan, baita emaztearekin ere. Presoak eskaera bakarra aurkez dezake urtean behin helburu horrekin. Preso askok kontatu zioten Addameerri une horiek beraiantzat duten garrantzia, baita presoak aita, ama edo seme-alabak ukitzen dituenean eta haiekin argazki bat ateratzen dutenean sentitzen duten poza ere, nahiz eta kartzelan egon.

Ohar pertsonal honetan, Odeh-ek zera dio: "Atxiloaldian, bi aldiz atera nituen argazkiak amarekin eta aitarekin. Une hauek oso bereziak eta ahaztezinak izan ziren. Sentimendu kontraesankorrez beteta zeuden. Preso gisa, pozez eta irrikaz sentitu nintzen maite nituen pertsonak ikusi eta besarkatzearen. Hala ere, poz hori ez da osoa, askatasun-gabetzearen sentsazioak bere horretan jarraitzen baitu".

Arkitektura zapaltzailea

Preso palestinarrek bortxazko une ugari jasan ditzakete Israelgo okupazio-espetxeetan, baita IPSko Unitate Berezien ohiko sarekadetan ere. Unitate berezietako kide horiek prestakuntza intentsiboa jasotzen dute presoek geletan eta sekzioetan nola sartu eta hainbat armekin erasotzeko, hala nola, pistola geldiarazle, borra, gas pozoitsu, gas negar-eragile eta gomaz estalitako metalezko balakekin.²⁶

Espetxeen arkitekturak Unitate Berezien xedea lagundu eta errazten du. Leihotz eta ateak diseinatuta daude Unitate Bereziek gas negar-eragilezko poteak bota ahal izan ditzaten eurek kalterik jasan gabe, ateen irikiune eta zirrikituak beren armadurekin itxi baititzakete. Ziegek ere altzari mugikor mugatuak dituzte, presoek beren burua defendatzeko gauzak erabil ez ditzaten. Esan bezala, borsheak lurrera eta paretetara torlojuz lotuta daude; beraz, presoek ezin dituzte erabili babesgarri gisa, eta ezin diete aurre egin unitate berezien ohiko sarbideei.

Randi Odeh-ek sarekada batean izan zuen esperientzia kontatzen du, Naqabeko espetxean zegoela, 2017an. Randiren arabera, Unitate Bereziek tratu gizagabea eman zieten presoek. Tropak sekzioan sartu ziren, eta gas negar-eragilezko poteak jaurti zituzten gelaxka batetik bestera zihoazen bitartean, presoak uxatuz eta patioko lurrera botaz. Presoak zortzi orduz egon ziren kateatuta patioko lurrean, tenperatura baxuan. Randik kontatzen du: "Egoera horretan egon ginen arratsaldeko zortzietatik egunsentiko hirurak arte, agonia une luzea izan zen, min jasanezina eta muturreko hotza, kolpeak, hitzeko irainak eta batetik bestera arrastaka eramateak eragin zigun oinazea dela eta. Foretan botata uzten gintuzten bitartean, unitatea bi eskuadroitan banatu zen: batek kalte handiak eragin zituen gure geletan, komunetako gauzak, hormak eta ateak suntsitzen zituen eta kanpora botatzen zituen; besteak, berriz, presoak zaintzen eta foraren zoruan jotzen zuten, presoek mugimenduren bat egiten bazuten. Komunetara joatea ere eragozten ziguten. Pisa gainean egitera behartu zuten diabetesa zuen lagun bat. Lur hotzean ahoz behera etzanda lau ordu inguru igaro ondoren -eskuak bizkarrean lotuta, ia odolik gabe, hezurretaraino sartzen zen hotz izugarriarekin-, sarekada amaitzear zegoela adierazten zuten seinale batzuk sumatu genituen"²⁷

Naqab eta Ofer espetxeetako presoek ziegak Unitate Bereziek gehien erabiltzen dituzten artean daude, beste atxiloketa-zentro batzuekin alderatuta populazio handiagoa baitute. 2007an, Mohammad Ashqar presoak martirizatu egin zuten Unitate Berezien eraso baten ondoren. Unitatea bortizki sartu zen bere ziegan. Antzeko gogortasunarekin, 100 preso inguru zauritu zituzten Naqabeko espetxean 2019an, eta horietatik hamabost inguru Soroka Zentro Medikora bidali zituzten, larrialdiz artatuak izan zitezten.²⁸

Estetika itzalaldian

Preso palestinarren esperientziak xehetasun korapilatsuz zipriztinduta egon ohi dira; hilabete eta urteetan zehar bizirik mantentzen diren oroitzapen iraunkor bihurtzen direnak. Bilal Odeh-ek Naqabeko espetxe osoan elektrizitate-mozketa bat izan zen neguko egun bat kontatzen du.


"Astelehen hura ohiko arauen arabera igaro zen: presoak zenbatu eta beren geletan sartu ziren.

Baina gaueko bederatzi eta erdietan argia moztu zuten. Espetxea ilunpean geratu zen. Elektrizitate-mozketak ez dira ohikoak Naqab espetxean, gauez batez ere. Dozenaka foku ikaragarrik argizatzen dituzte sekzioko espazio guztiak eta espetxeko hormetako txoko guztiak. Presoek gela ia argituetan ematen dute gaua, argia leihoetatik igarotzen baita. Ustekabeko iluntasun horrek balio izan zuen gogorarazteko gauak ez duela lekurik espetxeko kideen artean. Bat-bateko zalapartaren ostean, segundo gutxiz isiltasun sakonean geratu ginen, inork gaueko iluntasuna errespetatzeko inolako eskaerarik egin gabe, ustekabean egia bihurtu zen presoan amets txiki gisa: gaueko iluntasunaz gozatzeko ametsa, gizakiek egiten duten bezala."²⁹

Xehetasun horiek oso txikiak izan arren, presoentzako ezinbesteko garrantzia dute, eta aske utzi ondoren ere izan dezaketen eragina nabaria da. Adibidez, Ibiz Masoud-ek azaldu zuenez, hamabost urte baino gehiago kartzelan eman zituen arren, behin ere ez zuen erabateko iluntasuna sentitu. Gauez patioa foku handiekin argizatzen da. Guardiiek ere erregularri berrikusten dituzte gelak ordu-erditik ordu erdira, preso guztiak bertan daudela ziurtatzeko. Prozesu horretan, guardiek beren linternekin argizatzen dituzte karabanetan dauden presoak. Masoud-ek esan du askatzean ezin zuela lorik egin, erabateko iluntasunean ez bazen.


Fleifel Doktoreak adierazi du presoek argiaren eta iluntasunaren aurrean dituzten erreakzioek hainbat argiztatutako eremuetan soilik lokartzera eraman ditzaketela, berari gertatu zitzaion moduan. Beste batzuek gaueko argiztapena beren kartzela-esperientziarekin lot dezakete, eta, beraz, hura saihesten saiatu. Oro har, argia eta iluntasuna, eta haien aurrean erreakzionatzeko modua, kartzelan egotearen oroitzapen oso bereziak ekartzen dizkieten beste faktore batzuekin nahasten dira.

Naqab espetxeko kanpadenda baten plano arkitektonikoa



1. Karparen sarrera.
2. Litera [200 cm x 120 cm].
3. Dendako makilak.


Naqab espetxeko kanpadenden sekzioaren plano arkitektonikoa



1:500

1. Eremuaren sarrera.
2. Presio-dendak [12 m x 6 m].
3. Sukaldea [metalezko edukiontziak].
4. Bainuak [metalezko edukiontziak].
5. Dutzak [metalezko edukiontziak].
6. Patioa.

Naqab espetxeko furgoneta/edukiontzi baten plano arkitektonikoa



1. Furgoneta/edukiontzietarako sarrera.
2. Litera [180 cm x 80 cm].
3. Komunontzia eta konketa dituen bainugela] gortina batez itxita dago.
4. 100 cm-ko zabalera eta 50 cm-ko luzera duten barrak.

Eshel-go espetxea




Hadf berri agentzia

Eshelgo espetxea

Aro postmoderno honetan, Israelgo kartzeletako ziegek alde batera utzi dituzte beren funtzio historiko batzuk, hala nola, argirik gabe uztea eta desagertze behartuak. Hala ere, preso palestinarrak konfinatzen jarraitzen dute eta eguzkiaren argiaz gabetzen, nahiz eta ez dituzten kalabozo ilunetan kateatzen. Aldaketa horiek, ordea, ez dute eragiten Israelgo kartzelak bortitzagoak eta errepresiboagoak izatea; presoen buruak metamorfosifikatu egiten dituzte, norberak bere burua bere espetxe bihurtzeko, tortura-tresna gisa erabiltzen dituzten zentzumenekin.

Walid Daqqa, Harir nafsuk bi-nafsik (Set Yourself Free)

Beersheba espetxe konplexua osatzen duten lau presondegietakoko bat da Eshelgo espetxea, Palestina historikoaren hegoaldean kokatzen den Beershebatik gertu. Beershebako espetxe konplexuak lau espetxe ditu herri berean: Ohli Kedar eta Eshel segurtasuneko presoentzat, Dekel preso sozialentzat eta itxia dagoen Ayala espetxea, konfinamendu-kasu zehatzetarako erabiltzen dena, hala nola gosegreba kasuetarako.³⁰ Aireko argazki hauek bi aldaketa garrantzitsu erakusten dituzte 2011 eta 2013 urteen artean; zehazki, nabarmendutako eraikin laranjen eraikuntza. 2013 eta 2016 bitartean, gunearen ondoko lursail baten zati handi bat hesitu egin zen bertarako sarbide bat sortuz. Pasabide horrek bidea ematen du espetxea handitzeko eta eraikin eta instalazio berriak egiteko.



2011, martxoak 29; 2013, martxoak 19; 2015 ekainak 05; 2016 ekainak 08

Espetxeko eremu nagusiak

Eshelgo espetxea hiru atal nagusitan banatuta dago: bi segurtasun-presoentzat eta bat preso sozialentzat. IPS sistemak 10, 11 eta 12 erabiltzen ditu atal horiek izendatzeko; presoek, berriz, 15, 16 eta 17. Dibergentzia txiki horrek IPSak ezarritako semantikaren arbuio gisa jokatu du. Menpekotasun-ukatzeko soil bat, baina ahalik eta zehatzen transmititzen duena preso arbuioa okupazio-sistemari.

Eshelgo espetxeko atal bakoitza hemezortzi gelatan banatuta dago, eta horietako bakoitzean zortzi preso daude: 148 preso guztira. Gela bakoitzak 7 x 10 metroko azalera du, komun bat barne. IPS sistemak sei borshe jartzen ditu gela bakoitzean, hamabi presoentzat. Hala ere, Israelgo Auzitegi Gorenak espetxeetako bizi-espazioari buruz emandako epaiaren ondorioz, IPS presoek kopurua gutxitzen hasi zen gela bakoitzean, preso bakoitzeko bizi-espazioa handitzeko.

Ziegak

Eshelgo espetxeko ziega bakoitza angeluzuzena da, eta leiho bat du gelaxkako ate parean, bi arkuperen artean, baina horietako bakoitzetik 5-15 cm-ra. Burdinazko hesi eta barrote zilindrikoak ditu, eta leihoak 2,5 metroko altuerako latorrizko horma batera darama. Hormak, gutxi gorabehera, 1,20 metro distantziara daude leihoetatik 15. sekzioan, baina 20-30 cm-ra baino ez 16. eta 17. sekzioetan. Horrek ziega erabat iluntzea dakar eta leihoen berezko funtzioa ezabatzen du, hau da, airearen sarbide egokia eta aireztapena. Aitzitik, horma horrek ziegak itogarri bihurtzen ditu maiz. Ziega bakoitzak IPSk aurrez zehazturiko hamaika kate dituen telebista bat dauka. Kanal horietako batzuk aldatu egiten dira noizean behin, presoek eta IPSen arteko negoziazioen ondorioz. Kate horietako gehienak orokorrak dira, ez palestinarren, ezta tokikoak ere. Horrek erakusten du Israelgo okupazioak presoak beren komunitateetatik eta espetxetik kanpoko gertaeretatik isolatzeko politika. Sukalde-plaka bat eta tresna batzuk ere badituzte aretoek, hala nola, su txikia, zartagina, tea egiteko makina eta kafe-makina.

Gainera, ziega bakoitzak komun eta dutxa bana ditu. Bainugelak 2x2 m inguru neurtzen du eta komuneko eserleku bat du bentosarekin kokatua, hegazkinetako konketen antzera. Dutzaz gain, bainugelak altzairu herdoilgaitzezko armairu bat du, apaingarrietarako eta garbigarrietarako erabili litekeena. Komuneko kabina karratua da, eta 30-40 cm-ko tartekin beheko eta goiko aldean. Diseinu horren ondorioz, zenbait preso oihal zati bat erabili behar dute hutsune horiek betetzeko, komun-ontzia erabili bitartean intimitate pixkat sentitu ahal izateko. Dutzako ur-hodia mehea da,

oso txorrota txikikoa; horregatik, preso batzuek Coca-Cola botilak edo beste hodi erabilgarri batzuk erabiltzen dituzte, uraren presioa handitzeko.

Argiak

Eshelgo espetxean, gelek hiru argi-unitate (neoizko argiak) dituzte sabaian, eta horietako bakoitzak bi neoi-hodi ditu, plastikozko zorro garden batekin estaliak. Ikuskapen bakoitzean, kartzelariak argi-unitateak egiaztatzen dituzte, presoek ezer ezkutatzeko erabiltzen ote dituzten ziurtatzeko. Preso asko begiko minez eta bestelako osasun arazoez kexatu dira, argi artifizialaren eraginpean etengabe egoteagatik, eguzki-argirik ez izateagatik eta ikuseremua murrizteagatik.

Leihoak ikuskatu eta irekitzea

Eshelgo espetxeko presoek hainbat ikuskapen egiten dizkiete, beste espetxe batzuetan bezala. Gelak hiru aldiz ikuskatzen dira presoak zenbatzeko (goizean, eguerdian eta gauean). Leihoetako barroteak kolpatzera egunean birritan igarotzen dira, goizean eta arratsaldean, arratsaldeko kontaketa baino lehen.

Fora

Eshelgo espetxeko forak aldatu egiten dira eremu batetik bestera. Adibidez, 15. ataleko fora Eshelgo handiena da, eta 25 m² inguruko azalera du. 17. atalekoa, berriz, nahiko mugatua da. Presoak taldeka ateratzen dira foretara: bederatzi gelaka ateratzen dira elkarrekin forara. Espetxe horretan, forak bainugela txiki bat eta hormigoizko banku bat ditu. Banku horrek izan dezakeen garrantzia gorabehera, modu batera edo bestera foraren espazioa murrizten du. Foran ur-hozkailu bat, kirol-barra bat eta ariketa fisikoa egiteko lurrera torlojuz lotutako burdinazko barra paraleloak daude. Eshelgo preso palestinarrek ezin dira eguzki-argitan jarri foretan, zerua ia erabat estaltzen duen hormigoizko teilatua duelako, 120 cm x 7 m-ko zati txiki bat izan ezik. Hala ere, eguzkitan dagoen eremu bakarra sare metalikozko sabai batez estalita dago. Horrek erabat mugatzen du eguzki-argiarekiko esposizio-aldia, eremu horretan goizean bakarrik sartzen baitira eguzki printzak, eta oso gutxitan arratsaldez. Preso-kopuru handia batetik eta eguzkitan dagoen leku estuarekin bestetik, eguzki-argiaren eraginpean egoteko aukerak murriztu egiten dira.

Sei eta erdietatik goizeko zazpiak eta laurdenetara dago zabalik fora, batez ere ariketa fisikoa egiteko. Horrez gain, fora lau aldiz egon ohi da irekia, ehun minutuz aldi bakoitzean. Teilatupeko forek presoengan duten eragina eguzki-argiarekiko esposizio mugatutik haratago doa, gune zaratsua izanik, atsedenerako edo aisialdirako egokia ez delako batere egokia. Sabaituriko espazio mugatuan preso-kopuru handia dagoenez, eta horiek, elkarrizketa ezberdinak direla eta, aldi berean hitz egiten aritzen direnez, forak oso leku zaratsua bilaka daitezke.

Raafat Maaroufek gogoratu du Eshelgo kartzelan hainbat urte eguzki-argirik gabe igaro ondoren, Ramonen kartzelara eraman zutela: "Ramon espetxeko 4. sekzioan oin bat jarri orduko, harritu egin ninduen gainerako presoek aldean zein zurbil nengoen. Orduan konturatu nintzen Eshelgo kartzelan eguzki-argirik ez izateak azal-kolore horixkakoa bihurtu ninduela".

Barneko ikuseremua

Espetxe zentraletako presoek ikuseremu egokirik ez dute izaten. Espetxeetako aretoetako irismena ez da zortzi metro baino gehiagokoa. Foretan gehienez ere berrogeita hamar metrora zabal liteke. Horren ondorioz, presoek ikusmen-arazoak izateko joera dute, hala nola, hipermetropia edo miopia. Denborarekin, presoek ikusmena pixkanaka mugatzen doa, inguruko ikuseremuetara egokitu ahala. Dinamismo berezi horri dagokionez, Raafat Maaroufek hau dio: "2006an, Askalan [Ashkelon] espetxe nagusira lehen aldiz iritsi nintzenean, nire gelako atearen ondoan geratzen nintzen, eta albisteak irakurtzen nituen aretoaren beste aldeko telebistan. Handik bost urtera, Ramongo kartzelara eraman ninduten; aretoan sartzean, zutik geratu nintzen sarreraren ondoan, eta albisteen teletipoa irakurtzen saiatu nintzen, baina, berehala konturatu nintzen ezin nuela lerro bera distantzia beretik irakurri. Horrek eraman ninduen Naqabeko kartzelara lekualda nintzaten eskatzera, han ikuseremua handiagoa baita".

Berariazko mediku-arduragabekeria

Israelgo okupazio-kartzeletako preso palestinarrek nahita eragindako utzikeria medikoak pairatzen dituzte sistematikoki, besteak beste, atzerapenak edo osatu gabeko tratamenduak. Giza bizitzaren oinarrizko premiarik ez duen ingurune desegoki batean urteetan bizitzea kaltegarria izaten da

presoen osasunerako. Preso askok nabarmendu zuten espetxeek neurri handi batean laguntzen dutela presoen osasun-arazoak larriagotzen. Pareta hezeak eta aireztapen egokirik eza direla eta, presoek arnas-gaixotasunak garatzen dituzte edo beren osasun-egoera okertzen dute, lehendik eritasun horiek diagnostikatu bazaizkie; esate baterako, arnasik hartu ezina (arnasestua), bularreko katarroa (bronkitisa), sudurreko arazoak eta arazo sinusalak, buruko mina eta ikusmen eskasia.

Tonalitate gorrotagarriak

Presoen ziegak zuriz margotuta daude Eshelen; leihoak eta atepak, berriz, urdinez margotuta daude, Israelgo okupazio-espetxe gehienak bezala, guztiak hala ez badira ere. Presoak ezin dira nahi duten kolorez jantzi, eta debekatuta dute IPSko funtzionarioek jantzen dituzten kolorez janztera, hala nola urdina eta urdin iluna. Preso askok esan dute tonu marroiak direla presoen artean ohikoenak, IPSko presoen uniformearen kolorea baita. Praktika horiek erakusten dute Israelgo presoek etengabe urratzen dituztela beren eskubideak; izan ere, presoek eraman dezaketen arroparen koloretik, forma eta estilora zabaltzen dira murrizketak. Adibidez, IPSk askotan debekatzen ditu kremaileak, gorbatak, poltsikoak edo txanoak dituzten arropak. Agindu horiek eragin handia dute presoen psikean, etengabe gogorarazten baitiete atxilotuta daudela, denbora guztian zelatatuak izaten ari direla eta gai sinpleenetan ere kontrolatzen dituztela, beren arropa aukeratzea barne.

Alde horretatik, Fleifel Doktoreak dio presoek harreman desberdinak dituztela beren ziegetan koloreekin eta ingurunearekin, hiru adierazpen nagusi sortuz. Kolore jakin batzuen eraginpean luzaro egon diren presoek, hala nola kolore marroiak, urdinak edo zuriak, tonu horiekiko lotura emozionala edo arbuioa senti dezakete. Tonalitate horiek autoritarismoarekin eta konfinameduarekin duten lotura dela eta, presoek, maiz, espetxean janztera derrigorturiko kolore horiekiko arbuio eta nazka handia garatzen dute. Beste batzuek, ordea, bakeak egiten dituzte kolore horiekin, eta konexio berriak sortzen dituzte haiekin, konfinamenduan igaro zuten denboraz eta tonu horiekin eduki dezaketen elkarreragin ezkorra gaindituz.

Orduan, zein da norabidea aukeratzeko beharra eremu guztiak angeluzuzenak badira? Egitura guztiak dekadenteak dira, laukizuzenak eta kolore txuri-urdinekoak, geletatik, foretatik eta bestelako instalazioetatik bisita-gelara. Arkitektura angeluzuzen horrek kontrastea egiten du naturarekin, non urdina zerutik datorren eta zuria zerutik nahiz mendi elurtuen tontorretatik. Barruan zuria eta urdina urtu egiten dira. Gaizki-ulertuetarako tarterik gabe, eszenatoki monokromatiko honek Israelgo okupazioaren espetxe-enpresaren kolore ofiziala islatzen du.

Ameer Makhoul³¹

Eguneroko bizitzako arazoak espetxe barruan

Ziega txikiek ez dute aireztapen egokirik, eta presoek ondorio etengabeak izaten dituzte barruan bizitzeagatik. Presoek janaria prestatu behar dute eremu txiki hauetan: sukaldeko olioaren usaina, beren gelak preso erretzaileekin partekatzen dituztenentzat zigarroen keak utzirikoa... jasanezina egiten da. Presoak arazo horiek konpontzen saiatzen dira etengabe, hormak eta borsheak kloroarekin eta beste garbigarri batzuekin garbituz. Preso askok aipatu zuten elkarrizketetan atxilotutako esperientziaren atal hori: "Sukaldeko olioaren kea gela horietako hormetara irits badaiteke, pentsa ezazu zer izan behar duen ke hori egunero arnasten duten presoen birikentzat". *Eshelen dena atzerapenarekin ematen zaie presoei. Kantinako eskaerak berrogei egunetik behin ematen zaizkie, adibidez. Egia da zenbait presok ez dutela inoiz fruta edo barazkien zaporea dastatzen espetxean dauden bitartean. Pertsonalki, ezin izan nuen guavarik jan, ezta almendra berde freskorik ere. Sandia behin bakarrik jan nuen giltzapean egondako hamabost urteetan eta molokhia urtean behin.*

Raafat Marouf

Burdinazko borshe beldurgarriak

Eshelgo espetxeko literak gelako paretetatik ateratzen diren burdinazko barra zilindrikoak dira, bi pisuko litera bat osatzen dutenak, bata behekoa eta bestea goikoa. Litera bakoitzaren tamaina 190 x 90 cm ingurukoa da. Ertz horiek torloju handiekin finkatzen dira, desmuntatu edo beste ezertarako erabil ez daitezen, hala nola, gelako atea edo leihoa ixteko. Barrote pare bakoitzak burdinazko xafla bati eusten dio, eta xafla horrek zortzi zulo zirkular ditu aireztapenerako. Eshelgo IPSek koltxoi

meheak ematen ditu, 6 cm-ko lodierakoak. Hilabete baino gutxiago erabili ondoren, 2 cm inguruko lodierara murrizten dira. Horren ondorioz, presoek bizkarreko mina izaten dute. Aireztapen egokirik ez dagoenez eta koltxoiak ia erabat estalita dauden foretan eguzkitan jar ezin daitezkeenez, presoek haizagailuak erabiltzen dituzte koltxoiak aireztatzeko.

Baliabide mugatuko liburutegiak

Urteetan zehar, Israelgo okupazio-kartzeletako preso palestinarrek liburutegiak sortu dituzte beren hezkuntzari eusteko eta beren adimena lantzeko harturiko konpromiso gisa. Horretarako, presoek Eshelgo espetxeko biltegi bat baliatu dute liburutegi bihurtzeko. Liburutegi honetan 1.500 eta 1.800 liburu artean daude. Preso guztiak ezin dira eremu honetara sartu; liburuzain gisa izendatutako preso batek bakarrik ekartzen ditu presoek eskatutako liburuak. Presoen erregistro bat, maileguaren data eta beste informazio batzuk ere baditu.³² Liburutegi edo biltegiratze gune bereizirik ez dagoenez, presoek zenbait gauza biltzen dituzte bertan, hala nola neguko eta udako arropa, urtarorearen arabera, manta osagarriak eta haizagailuak.

Kontrabandoko esperma: bizitzaren beste aurpegi bat


Esperma-kontrabandoa palestinarrek barruan duten bizitzaren idiosinkrasietako bat da. Lehena hogeita zazpi bizi-artekeo espetxe zigor betetzen ari den, Ammar al-Zabin izan zen, 2012an, haren emazteak erditzea lortu baitzuen lehen aldiz. Al-Zabinen kasuaren ostean, seme-alabak izateko esperma kontrabandoz pasatzen saiatu ziren presoek kopurua handitu egin zen. Raafat Maarouf preso horietako bat izan zen, eta Adameer-ek esperientzia hau jaso ahal izan zuen. Maarouf-ek 4 haur izan zituen esperma kontrabandoari esker; Raafatek honoko hausnarketa burutzen du: "Hainbat preso *Li Ajlikum* (itz. lit. Zuretzat) telebista-programa ikusten ari ginen, Manal Seif-ek aurkeztua. Esperma-kontrabandoari buruzkoa zen atal hau, eta presoetako batek nola lortu zuen seme bat izatea metodo horren bidez. Ikusten nuen bitartean, esperientzia hartatik igaro nahi nuela sentitu nuen. Asko kezkatzen ninduen nire emaztearen eta amaren erreakzioak, baina hurrengo bisitan esan nion eta ideia ondo iruditu zitzaion.

Lehen intseminazio artifizialak arrakasta izan zuenean, ospatu eta gozokiak banatu nituen nire kideen artean. Denek uste zuten nire ilobaren batxilergoko azterketa orokorretan izandako arrakasta ospatzen ari nintzela. Inork ez zekien, 'Amer', nire lehen semearen etorrera ospatzen ari nintzela. Zenbat eta preso gehiagok esperma kontrabandoa egitea lortu, orduan eta handiago zen praktika hau geldiarazteko espetxe-agintarien ahalegina. Horrekin batera, Israelgo hedabideek hainbat kanpaina egin zituzten esperma-kontrabandisten eta haien familien aurka. IPSak ere ukatu egin zien horrela jaiotakoei gurasoak bisitatzeko aukera, potentzia okupatzaileak uko egiten baitzion haur horien eta gurasoen arteko harremana onartzeari.

Raafatek hau ere gehitzen du:

"Nahiz eta gutxitan isuri malkoak, ezin izan nion negarrari eutsi Amer semea lehen aldiz ikusi nuenean. Amerrekin lehen aldiz egongo nintzen unea gerturatu ahala, ezin nion nire emozioari eutsi. Bisita-gelan eseri nintzen, familia noiz sartuko zain. Haurren pozak edo familia bisitarien iskanbilak bihotza astintzen zidaten. Amer nire familia-bisitara sartzen ikusi nuenean, inoiz bizi gabeko sentimenduak nabaritu nituen. Ikusi, besarkatu eta usaindu egin nuen, edozein aitari dagokion bezala. Nire ametsa oinak musukatzea zen, baina zapatak kendu zizkionean, negarrez hasi zen, eta guardiek oinetakoetan zerbait ezkututzen saiatu ginen susmoa piztu zitzaion. Eta umea emazteari eman behar izan nion, oraindik nire besoetan edukitzeko gogoia nuen arren.


Eshelgo kartzelako areto baten plano arkitektonikoa



1:100

1. Litera [200 cm x 120 cm]
2. Elikagaiak gordetzeko armairu metalikoak eta goialdean teontzi bat eta sukalde elektrikoko plaka bat daude.
3. Konketa txikia [50 cm x 30 cm]
4. Metalezko komunak (antzinako arabiar komunak)
5. Dutxa
6. 10 cm-ko lodierako burdinazko atea, leiho bat, barroteak [40 cm x 30 cm] eta Ashnaf irekidura bat dituen.
7. Barroteak eta sareak dituen leihoa [250 cm x 100 cm].
8. 1 cm-ko lodierako aluminio finezko bainu-atea
9. 1 cm-ko lodierako bainatzeko atea, goitik eta behetik irekia

Eshelgo espetxeko eremu baten plano arkitektonikoa



1. Sarrera-sekzioa
2. Espetxeke aretoa
3. Murdwana [34 m x 2,8 m]
4. Segurtasun-atea
5. Harraska
6. Espetxeke zaintza-gela
7. IPSaren administrazio-gela
8. Goiko pisuetara sartzeko eskailera
9. Patiora ematen duen segurtasun-atea
10. Patioa
11. Bainu txikia
12. Patioan zehar zabaltzen den zementu-bankua
13. Kirol-ariketen eremua

14. Zementuz eginiko irekidura txikia patioaren teilatuan
15. Zinkezko horma, 2,6 m-ko altuera eta 1,2 m-ko tartea leihoetatik

OFERGO ESPETXEA




Sabq24 berri agentzia

OFERGO ESPETXEA

Israelgo kartzeletako errepresioa eta tortura ez dira munduko espetxe-literaturan deskribatzen diren berberak. Ez da elikagairik edo botikarik kentzen, eta ez dakusazu eguzkia ukatzen zaion edo lur azpian den presorik. Presoak ez daude kateatuta, eleberrietan bezala, burdinazko kateekin, egunez eta gauez. Okupatzaile post-modernista baten espetxeetan, gorputzak ez dira helburua: arimak eta buruak dira. Espetxe eredu honetan preso palestinarrak ez daude Abu Za'abaleko, ezta Abu Ghraib edo Guantanamo espetxeetan giltzapetuak dauden baldintzetan. Espetxe horietan guztietan, torturatzailerak eta haren tresnak ezagutzen dituzte, eta ziur daude tortura fisiko zuzena izango dela. Israelgo kartzeletan, ordea, tortura "zibilizatuko" itzal sakonagoei aurre egiten diezu, eta horrek zure zentzumenak eta burua eguneroko tentazio tresna bihurtzen ditu. Isil-isilik hurbiltzen da, askotan borrarik gabe, eta ez zaitu estutzen. Zurekin bizi da, eta zure denbora, ziega, forak, eguzki-argia eta nolabaiteko oparotasun materiala partekatzen dituen espetxeko kide bihurtzen da.

Walid Daqqa, Sahr al-Wa'y (Kontzientziaren desintegrazioa)

Ofergo espetxea 1988an ezarri zen Beitunian, Ramalako mendebaldean. Hamabi atal ditu, batzuk berriak eta beste batzuk zahar samarrak. 1990ean, instalazioak ia hamarkada batez itxi ziren, eta 2000n berriro ireki ziren, hamaika eta hamasei sail artean kanpadendetan. Urte batzuen buruan, Ofer preso-eremu izatetik hormigoiz eraikitako instalazio izatera igaro zen. 2015ean, 17. eta 18. eremuak gehitu zitzaizkien instalazioei, eta, ondoren, 19-22.-ak. Ofergo espetxea atxilotze-zentro gisa erabiltzen den kartzeletako bat da, oraindik epaitzeke daudenentzat eta zigor laburrak betetzen ari direnentzat. Horregatik, Ofer mukuru egon ohi da, nahiz eta 1.100 bat presorentzat lekua izan, Israelgo okupazio-agintarien arabera; kopuru horrek nazioarteko arau egokiekin eta Israelgo Auzitegi Gorenak onartutakoekin talka egiten duen arren. Israelgo okupazio-agintariak askotan egiten diete muzin arau horiei, eta preso asko atxikitzen dituzte espazio murriztuetan. Irudi hauek 2011 eta 2016 bitartean Ofergo espetxeko planoetan eta eraikinetan izandako aldaketak erakusten dituzte:



2011, martxoak 29; 2015, urtarrilak 25; 2016, otsailak 26; 2016 maiatzak 14

Sekzio arruntak: 11- 20 sekzioak

Sekzio bakoitzak hamabi ziega ditu, hamar presorentzat hamar borshez hornituak. Kartzela-espazioari buruz Israelgo Auzitegi Gorenak emandako epaiaren ondoren, zentro horretan sei presora

murriztu zen gela bakoitzeko kopurua, hau da, hirurogeita hamabi preso atal bakoitzean. Gela bakoitzak 8 x 3,5 metro ditu gutxi gorabehera. Gelak bi solairutan banatuta daude: beheko solairuan bost ziega daude presoentzat, kantina bat, ikuztegi bat, ile-apaindegi bat (bizartegia) eta liburutegi bat. Goiko solairuan 6-12 ziega eta biltegi bat daude, presoek aparteko arropa, gauzak, haizagailuak eta artilezko mantak gorde ditzaten. Goiko eta beheko solairuak kanpoko eskaileren bidez lotuta daude. Presoen ziega bakoitzak komun bat du eta solairu bakoitzak dutxetarako gune bat-zazpi dutxa inguru solairu bakoitzean. Eredu arkitektoniko horren ondorioz, presoak foretan bakarrik dutxatu daitezke, dutxak ziegetatik kanpo baitaude.

Okupazio anitzeko zelulak

Ziega bakoitzaren tamaina 8 x 3,5 m-koa da gutxi gorabehera, preso kopuruarekiko proportzionalak diren zenbait borshe eta bainugelarako espazio bat barne; aurrerago sakonago aztertuko dena. Ziega bakoitzak sukalde txiki gisa erabiltzen den txokoa ere badu, plaka bero batekin eta kumkumarekin (ikus Glosarioa). Borsh bakoitzaren ondoan metalezko bi armairu txiki daude, preso bakoitzak bere objektu pertsonalak gorde ditzan, arropa adibidez. Gela bakoitzak telebista bat du, normalean gelako atearen gainean. Tresna horiek IPSk ematen ditu. Hala ere, telebista puskatzen bada, presoek ordaindu behar dute. IPSak erabilgarri dauden telebista-kateak ere zehazten ditu, eta presoek ez zaie onartzen aurrez ezarritako menura sartzerik kate berriak gehi ditzaten.

Ziegek plastikozko mahai bat, sei aulki eta bi mahai txiki dituzte. Presoak altzari horiek baliatzen dituzte otorduetan, janaria zerbitzatzeko eta elkarrekin jan ahal izateko. Hala ere, ziegan zazpi preso edo gehiago badaude, presoetako batek (edo gehiagok) lurrean edo mahaiaren ertzetan eseri edo zutik jan beharko du. IPS sistemak plastikozko sei aulki baino ez ditu ematen, eta aulki bat apurtzen bada, berri bat lortzeko prozesuak denbora asko darama.

IPS-ak aire girotuko unitate bat jarri zuen biltegian. Horren ostean, presoetako batek koltxoia eraman zuen bertara, udako egun kiskalgarrietan gela horretako aire girotuaren azpian lo egiteko.

Hafez Omar

Udan, presoek, aurrez erositako haizagailuak ziegan edukitzen uzten diete.³⁶ Presoek haizagailuak erabiltzen dituzte uda osoan, eta biltegian jasotzen dituzte negua hurbiltzen denean. Haizagailu kopuru handia izan arren, zenbait presok adierazi zuten aparatu horiek ez dutela gehiegirako balio udan, presoek plaka elektrikoak erabiltzen baitituzte janaria prestatzeko eta ura irakiteko, eta horrek, aldi berean, geletako tenperatura altu mantentzen du. Egoera okerragoa da goiko solairuko presoentzat, izan ere, IPSak bere geletako sabaia berariaz estaltzen ditu asfaltoz estalitako burdinazko xaflekin, presoen bizi-espazioak labe bihurtuz. Hiru argiztapen-unitatek argiztatzen dute ziega. Presoek kontrolatzen dituzte argi horiek, baina gehienek borsheetatik zintzilika daitezkeen lanpara txiki batzuk erosten dituzte, gauez irakurri ahal izateko.

Norberaren abanikoak, gehienak zaharrak, IPSk erosi zituen zuzenean presoen kontura, edo zeharka, kantinatik ateratako irabaziak baliatuz; bi kasuetan, baina, presoen diruarekin. Gainerako eskubide guztiak bezala, abanikoak ere pribilegiotzat dituzte, edo bestela adierazita, IPSaren "borondate onaren keinu" gisa. Nahiz eta beste edozein baliabiderek ere egiten duen moduan, presoen aurkako zigor edo presio tresna gisa darabilen. Eta noski, kontuan har dezagun haizagailu horiek hormen eta burdinazko hesien artean atxikitako aire lehorra eta hezea baino ez dutela haizatzen. Udan, horma beroek borsheetan barrena beroa barreiatzen dute. Lurretik hirurogei zentimetro baino gehiago altxatzen ez diren borsheetan, egun osoan metatutako bero guztia pilatzen da, presoen kalterako.

*Ameer Makhoul*³⁷

Ziega bakoitza burdinazko ate batek ixten du, 10 cm inguruko lodierakoa eta kanporantz irekitzen dena. Lehiotxoak ditu, 40 x 60 cm ingurukoak, eta burdinazko hiru barra zirkularrez eta alanbre karratuz estalita dago. Ziegako ateak ere arteka bat du behealdean, eta batzuetan janaria zerbitzatzeko erabiltzen da. Atearen goiko aldean dagoen leihoa neguan plastiko-zati batekin estaltzen da, geletan sartzen den aire hotza murrizteko. Estalki hori udan kentzen da. Gela guztietan leiho bat dago foretara daraman atearen ondoan. Leiho hori hiru edo lau barrote angeluzuzenez eta burdin-hesizko marko karratu batez inguratua dago. Leiho horren tamaina 1 x 1 metrokoa da, gutxi gorabehera. Leiho horrek ez du ziegak aireztatzen laguntzen, eta ez du argiztapen indartsurik

ematen, espetxea inguratzen duten horma altuengatik. Errepresio-unitate bereziek leiho hori ixten dute gelaxkak asaltatu eta gas negar-eragileak botatzen dituztenean, aireztapen-iturri nagusia blokeatzeko.



EIPko Unitate Berezien argazkia, sarekada batean ziegako leihoa zigilatzen duten bitartean. ³⁹

Ziegetako komunak

Gelaxka bakoitzaren sakonean dagoen zokoan, gutxi gorabehera 180 x 80 cm-ko komun bat dago, konketa eta komun-ontzi batez osatua.⁴⁰ Eremu horrek leiho txiki bat ere badu, 50 x 70 cm-koa, barrote angeluzuzenez estalia, eta sareta estaliko marko karratu batez inguratua. Leiho horrek espetxearen atzeko paretara darama, arestian aipatutako gelaren amaieran dagoen leihoak egiten duen antzera. Hain zuzen ere, leihoak metalezko xafla luze batzuez estaliak daude, beste ezer ikusten uzten ez dutenak eta bainugelari sartzen den aire-fluxua blokeatzen dutenak.

Oferren espetxeko komunaren arazo nagusietako bat ateak dira. Garai bateko sekzioetan (11-14 sekzioetan), komunetako ateak plastiko indartuzkoak ziren, aluminiozko markoa zuten eta kremailera antzeko batez ixten ziren. Ate horien arazo nagusia zen ez zirela intsonorizatuak eta usaina ere erraz barreiatzen zela; beraz, komuna erabiltzean lotsa sorrarazten ziren presoek, bereziki geletako preso-kopurua handia zenean.

Urte batzuk geroago, 15-20 sekzioak eraiki zirenean, burdinazko ateak erabili ziren komunetarako. Horrek presoek lagundu ziren komunetako zarata eta usaina ziegara ez barreiatzen, eta intimitate-sentsazio handiagoa eman zien. 21. eta 22. atalen diseinuak, eraiki berriak izan arren, ez du kontuan hartzen atxilotuen intimitatea. Komuneko atea metro bateko luzera duen burdinazko xafla bat da eta kabinaren goiko eta beheko aldean 40 cm inguruko hutsuneak ditu. Diseinu hori dela eta, presoek oihal zati bat erabili behar dute hutsune horiek estaltzeko, eta, hala, komuna erabiltzean intimitate pixka bat izateko. Hala ere, horrek ez du konpontzen intimitaterik eza, ezta zarata edo usainaren arazoa ere.

Presoa arazo horiei irtenbidea bilatzen saiatzen da etengabe. Preso batzuek hainbat aldiz botatzen dute katetik uraren soinuak beste soinu edo usain batzuk estal ditzan. Ahalegin horiek geldiarazten saiatzen da IPS, praktika horiek kostu gehigarriak sortzen dituztela eta espetxeko uraren faktura handitzen duela aitzakiatzat hartuta. Ur asko kontsumitzen zuen edozein gelari isun ekonomikoa ezartzen hasi ziren, nahiz eta alternatiba praktikorik eskaini ez.

Briery Ground

Orokorrean, gehiengoak pentsa lezake kartzeletan presoak ibiltzen diren lurzoruak hormigoizkoak direla. Hala ere, Ofergo kartzelan bizi ziren presoek adierazi zuten lurzoru horiek baldosen antzeko plastiko leunez eginak zirela. Lurzoru hori ez da hasukaitza, eta denborarekin pitzadurak agertzen dira. Ondorioz, presoek bizi-baldintzak okertu egiten dira, garbitzean ur-putzuak sortzen baitira pitzadura horietan, plastikozko lurzoru horien azpian lurzoru irregularra delako. Presoak maiz

lesionatzen dira oinetakorik gabe doazela baldosa hautsi bat zapaltzen badute. Esan bezala, presoak behartuta daude askotan aulki faltagatik otorduak zoru irregularrean eserita egitera.

Forako patioa

Espetxeko patio angeluzuzena 8 x 3 metro inguruko azalerakoa da eta sekzio bakoitzaren erdian dago. Oferren, fora guztiak beheko solairuan daude. Foren atzeko aldean goiko eta beheko solairuak lotzen dituen eskailera bat dago. Foren lurzoruaren kolorea marroi-gorrixka izaten da, saskibaloiko aretoen antzekoa. Zorua laua da, eta forjak burdinazko barrak ditu, alde batzuetan burdinazko alanbrez eta beste batzuetan metalezko xaflez errematatuak. Diseinu horrek eragotzi egiten du eguzkiaren argiak patioko gune batzuk argizatzea eta beste hainbat egoki argizatzea. Ayman Nasser-ek gogoetetzen duenez: "Eguzki-argia asko sartzen ez zen sail batean nengoen; eguzki printzak metro eta erdiko eremu txiki batera iristen ziren. Horregatik, eguzki-argiaz gozatu nahi nuenean, eremu txiki horretako aulkietako batean tente jarri behar nuen, printzek argitzen ninduten bitartean; baina hori eguerdian baino ezin zen egin."

Espetxeko patioan zaudenean, putzu batean eserita egongo bazina bezala sentitzen zara, zehatzago esanda putzu horren sakonean, alde guztietatik 10 metroko altuerako hormez inguratuta.

AymanNasser

IPSaren araudiak dioen moduan, geletako ateak ordu erdiro ixten dira fora orduan zehar, presoak beren geletara itzuli edo patiora atera ahal izateko. Foren izkinetako batean komuntzat har litekeen gune txiki bat egoten da, foretako orduetan erabil daitekeena, ordu erditik ordu erdira gelaxketako ateak ixteko arazoa saihesteko.

Israelgo okupazioak presoa beren familia eta lagunengandik isolatu nahi du, eta presoa bakarrik eta kanpoko munduarekin lotzeko gai ez dela sentitzeko politikak ezarri.

Mais Abu Ghosh⁴¹

Fora eta espetxea inguratzen duten hormen altuera gehiegizkoa da; segurtasun beharrekez dute zortzi metroko garaierako horamarik justifikatzen. Gehiegizko garaiera hori presoen nahia, ez haien gorputzak soilik, giltzapetzeko pentsatuta dago. Fleifel Doktoreak aztertu duenez, "oso altuak diren hormak, batez ere, atxilotuek edozein gauzez gozatzeko duten gaitasuna oztopatu eta murrizteko daude pentsatuta. Harresiekin presoek ezin dute ikusmena erabili naturaren edertasuna ikusi eta gozatzeko. Horma horien ondorioz, presoak putzu batean harrapatuta egongo balira bezala sentitzen dira. Presoek inpotentzia, isolamendua eta mundutik urruntzeko sentsazioa barneratzeko beste saiakera anker bat baino ez litzateke, beraz."

Barruan zure egunerokoa eraikitzen duzu bizitza orekatu baten bila. Oreka hori kantinaren atetik agertzen den mendi-zatiak, alde guztietatik inguratzen zaituen zortzi metroko altuerako hormaren angeluak, zerua eta hodeiak karratu txikitik ebakitzen duen burdin sareak-nahiz eta ez mosaiko gisa- baldintzatua dator. Lauki bakoitzean ezin da izar bat baino gehiago sartu, eta horrek bakardadea sentiarazten du atxilotze-aldi osoan zehar. Mendiaren puska bat zirrikitu batean agertzen da eta ondorengoan desagertzen, sekzioen norabideak gurutzatu egiten direlako. Zure gorputzaren neurrien arabera da dena: zure garaiera, alegia. Zenbat eta altuagoa izan, orduan eta mendi zati gehiago iritsiko da zure ikusmena. Zorte txarra baduzu, mendiak ihes egingo du zure ortzimugatik, eta paretek garai jarraituko dute zure beigen aurrean.

Ameer Makhoul⁴²

Kirola eta ariketa eremu murriztuetan

Presoei goizeko fora orduan ariketa egiteko baimena ematen zaie, normalean, zazpiak eta zortziak bitartean. Espetxeko patioan ez dago ariketak egiteko tresnarik, baina bai barra bat eta hainbat kako sare bat zintzilikatzeko. Gainera, bularreko prentsaren antzeko makina bat dago. Presoek sokara salto eta korrika ere egin dezakete. Soka bat ematen zaie goizean, baina foretako entrenamendua amaitu eta berehala itzuli behar dute IPSra.

Ariketak gai sinplea dirudien arren, IPS etengabe saiatzen da presoak eremu mugatu horretan deseroso senti daitezen. Adibidez, presoek ezin dute ostiral eta larunbatetan soka-saltoan aritu, administrarietaz asteburua izanik, presoren bat lesionatuz gero, oso zaila omen litzatekeelako ospitalera eramatea. Gainera, foren tamaina txikiek hainbat osasun-arazo eragiten dizkiete presoei,

hainbatek artikulazio-afekzioak izaten baitituzte ariketa eta korrika leku mugatu batean egitearen ondorioz.

Burdin harlauzen gaineko ametsak

Ofergo kartzelako literak burdinazko literak dira nagusiki, eta horietako bakoitzak eskailera txiki bat du goiko literara iristeko. Litera bakoitza burdinazko xaflez egindako somier batez estalita dago. Denboraren poderioz, xafla horiek higatu egiten dira. Izan ere, presoek etengabe erabiltzen dituztenez, haietan lo egin duten hainbat presoren silueten forma hartzeko joera dute. Burdinazko lauza horiek, euren karraska soinu desatseginaz gain, oso hotzak dira neguan, batez ere koltxoien higaduragatik, ez baitute 2 cm-ko lodiera gainditzen kasurik onenean. Borsh-aren tamaina 180 x 50 cm ingurukoa da.

Neguak hotzak dira espetxean, eta berokuntza-instalazioak mugatuak dira. Alferrikako berogailu baten inguruan bildutako zortzi preso ginen. Galtzerdiak berotu eta berehala jartzeko erabiltzen genuen, gure oin izoztuetan odol-zirkulazioa suspertzen saiatuz.

Hafez Omar

Ayman Nasser-ek gogoeta egiten du: "Preso gisa, diskoko eta bizkarreko mina nuen. Atxiloketa osoan etengabe sentitu nituen min horiek, koltxoi horietan lo egitea deserosoa zelako. Batzuetan gummy bat aurkitzen nuen, plastiko indartuko lauza bat, ohearen gainean jartzen zena bizkarreko mina duten pertsoneri laguntzeko. Hala ere, ez dago harlauza hauetako askorik kartzeletan. Atal bakoitzean lauza bat edo bi aurki daitezke, normalean min handia duten presoek esleituak. Egoerak okerrera egiten du IPSak lauza horietako gehiago ekartzeari edo higatuta daudenak ordezkatzeari uko egitean."

Toalla: Oihal-puska bat izatetik, IPSaren segurtasuna ahultzen duen tresna bat izatera.

Presoek, maiz, modu burutsuak aurkitu behar izaten dituzte desberdintasun kulturalak gainditzeko, zeinak espetxeko eremu jendetsuetan are nabariagoak diren. Eguneroko gertaerek arazoak sor ditzakete espetxeetan, hala nola, telebista ikustea edo gauean irakurtzea; izan ere, telebistako argiztapenak edo irakurtzeko erabiltzen diren lanpara txikiak gogaitu egin ditzakete goiz lo egin nahi duten presoak. Zenbait presok diote borsh-ean irekirik geratzen zen tartea eskuoihal batekin estaltzen saiatu zirela, lo egiten zuten bitartean argiarekin gogaituak izateko aukera ekiditeko edo murrizteko.⁴³ Horrek preso-kopuru handi bati lagundu zion, baina, IPS horretaz jabetu ondoren, hori egitea debekatu zuen, zaindareei galarazten zuelako preso bakoitza gauez ohean zegoela ziurtatzea. Gauero, zaintzaileek aldizkako kontrola egiten dute ordu-erdian behin, ziegak ateetako lehiotxoetatik zuziekin argizatuz. Presoen autonomiaren mugatze txiki diruditen arren, zapalkuntza-sistema zabalago batean beste katebegi bat baino ez dira.

Darwin-en bila

Israelgo okupazio-agintariak erabiltzen duten beste zapalkuntza modu bat presoen heziketa intelektuala oztopatzea da. Espetxe zerbitzuak debekatu egiten du kartzeletan liburu asko banatzea, eta liburu bat erretiratzea eskatzen du beste bat sar dadin. Preso batek Ofergo espetxean izandako istorio dibertigarria kontatzen du. Presoetako batek Charles Darwin-en "Espezieen Jatorria" saiakera irakurri nahi izan zuenean hasi zen. Familia-bisiten bidez liburua eskatzen zuen bakoitzean, espetxe-agintariak ukatu egiten zioten. Ahalegin batzuk egin ondoren, presoak IPSri galdetu zion zergatik ez zuen onartzen, eta esan zioten "segurtasun neurriak!" zirela arrazoia. Praktika horiek potentzia okupatzailearen eta edozein praktikaren logikaren zorrotasuna adierazten dute. Zer mehatxu eragin liezaioke segurtasunari eboluzioari buruzko liburu zientifiko batek?

Sukaldeak

2019tik, Ofergo espetxeko administrazioak sukaldeko gobernantza itzuli die segurtasun-presoei, batez ere sukaldarien gastu ekonomikoa murrizteko. Janaria orgetan zehar zerbitzatzen da eta atal bakoitzera nahiz ziegetara eramaten da. Atal bakoitzean zazpi presok banatzen dute janaria, eta ziega bakoitzean preso bat dago janaria prestatu eta, erabat prestatua ez badago, azken ukitua emateko. IPSak debekatu egiten du elikagai jakin batzuk sartzea, eta beste batzuk sukaldatuak egoteko baldintzapean uzten ditu sartzen, hala nola patatak eta berenjenak. IPSak dio produktu

horiek sendoak direla eta kontrabandorako erabil daitezkeela, nahiz eta osagai guztiak zehatz-mehatz ikuskatzen dituzten sukaldean onartu aurretik, baita zerbitzatu aurretik ere. Horrek erakusten du espetxe-araudia guztiz arbitrarioa dela.

Kantina

Ofergo espetxeko kantina preso arrunt baten gelaren antzekoa da, eta zenbait apalategi metaliko ditu, saltzeko baimenduriko artikuluak erakusteko. Artikuluak kantinako presoek prestatutako zerrenda batean oinarrituta erosten dira. Menu horrek kartzelan sar daitezkeen artikulu guztiak biltzen ditu. Artikulu batzuk aldeztu aurretik enkargatu behar dira, eskaerak denbora asko behar baitute atal bakoitzera iristeko.

Kontaketa

Ofergo espetxean kontaketa beste espetxe batzuetan bezala, goizean, eguerdian eta atalak itxi baino lehen egiten da. Goizeko zenbaketa, adibidez, goizeko bost edo bost eta erdietan hasten da, eta ordu eta erdi eta bi ordu bitartean irauten du. Tarte horretan presoek ezin dute ezer egin; ezin dute dutxatu, beren izenak esan ondoren foretara atera, edo ariketarik egin: beren bizitza eta jarduerak bertan behera geratzen dira. Kartzelariak berek egiten dute atal bakoitzeko kontaketa, eta horrek esan nahi du lehenengo sekzioetako presoek zain egon behar dutela, etenaldian, azken sekzioetako presoak kontatu arte.

Eguneroko eragozpenak

Barruan, presoek beren bizimodua eraikitzen dute, gela antolatu eta garbiak mantenduz, liburutegiak sortuz, irakurketa-ordutegia mantenduz eta israeldarren okupazioaren politika zigortzaileetatik bizirauteko behar dena eginez.

Espetxean, kartzelariak kriminaltzat zauzkate eta, beraz, ez duzu pozik egotea edo ezer ospatzea merezi. Izan ere, espetxe barnean ez dugu egun berezirik ospatzeko edo zure gogoko kirol taldearen golik ospatzeko ohitu egiteko eskubiderik.

Hafez Omar

IPSak eta unitate bereziek aldizkako eta ausazko sarekadak egiten dituzte espetxeko moduluetan. Miaketa batzuk aldizka egiten dira, debekatutako edozein artikulu konfiskatzeko kontrol orokor gisa, hala nola hezkuntza-liburuak edo plater bero gehigarriak. Hala ere, beste miaketa batzuetan, IPSek edo unitate bereziek presoek gauzak apurtzen dituzte; hori oso ohikoa da unitate bereziek erregistroak egiten dituztenean. Esperientzia horri buruz, Hafez Omarrek gogoeta egiten du: "Israelgo okupazio-espetxeko preso zarenez, sistema berezi bat sortzen saiatzen zara beti, zure gela txukun eta garbi edukitzea barne sartzeko delarik. Hala ere, zure oreka hautsi egiten da zaindariak miatzen hasten diren bakoitzean. Indar bereziek atxilotuen gauzak hondatzen dituzte, arropa, janaria eta edozein gauza pertsonal manipulatu, hala nola liburuak, koadernoak, argazkiak eta abar. Miaketa amaitu ondoren, atxilotuak egun oso bat behar izan dezake gela berrantolatzeko; batzuetan, egun bat baino gehiago behar izaten du. Adibidez, indar bereziek gelan dauden elikagaiak nahasten dituzte batzuetan; adibidez, olioaren irinarekin gainean bota dezakete. Arropa, irriak eta lanparak ikuskatzeaz zer esanik ez. Horrek objektu horiek kalte ditzakete, baina arazoa are mingarri bihurtzen da gauza ordezkaezin batzuk hondatu edo konfiskatu gero, hala nola presoek idatziak." IPSak presoaren eguneroko xehetasun guztiak kontrolatzen ditu, baita argazki familiarak non koka daitezkeen eta zein izaerakoak izan behar duten ere. Praktika horiek, itxuraz ohikoak eta eragin arinekoak izan arren, presoaren espiritua hausten dute, bere identitate-zentzua kendu eta haren kontrola estutzen baitute. Atxilotuak-aldiko bizitzaz presoak eduki dezakeen kontrola, mugatua bada ere, ezinbestekoa da aurrera egiteko. Horren jakitun, IPSak presoaren eguneroko xehetasun sinpleenaren gaineko kontrola izateko etengabeko ahaleginena aritzen dira, presoaren moralak txikitzeke eta duten guztia edozein unetan kendu ahal dietela senti dezaten.⁴⁴

Aws txikiak bere argazkia begiratzen zuen Aser aitarekin. Hurrengo bisitan aitari aurkeztuko ziola esan zidan. Baina irudiak editatua zirudien, ez erreala. Horri buruz galdetu nuenean, Aserren emazteak irrealak zela esan zidan. Okupazioak ez die uzten presoek familiekin oroitzapenezko argazkiak ateratzen, haien seme-alabak eta emazteak barne. Horregatik, Aser Aws besarkatzen ariko balitz bezala agertzen den argazkiak sortzen jarraitzen du. Aser-ek eskatuta egiten ditu

argazki hauek, manipulaturiko argazkiak izanagatik ere, semea musukatzeko eta besarkatzeko poza sentiarazten baitiote.

Raafat Al-Asous⁴⁵

Suziri eta gas negar-eragileen artean

Ofergo espetxea Beitunian dago, Ramalatik gertu, Jerusalem eta Zisjordania bereizten dituen kontrol-postu garrantzitsu batetik gertu. Zenbait presok esan zuten auto zibilen eta lasterketa-motozikleten zarata entzun zezaketela Ofergo espetxean zeudenean. Askotan, ibilgailu edo motozikleta horien marka auresaten saiatzen ziren. Beste batzuetan inguruko ezkontza baten ospakizuneko suziriak entzun zitezkeen. Horrez gain, espetxe kanpoko martxa solidarioen aurka egiteko erabiltzen diren gas-bonben usaina ere iristen zaie. Xehetasun horiei esker, atxilotuak kanpoko bizitzatik hurbil senti litezke. Beraz, alde nabarmena dago Ofer bezalako leku baten barruko bizitzaren eta hegoaldeko basamortuan isolatutako kartzela baten barruko bizitzaren artean.

Berrogeita bost minutuko askatasuna

Denbora luzez, Addameerrek dokumentatu ditu Ofergo espetxean atxilotuak bisitatzeko prozedurak. Atxilotu askok adierazi zuten presoek familien bisitak baino egun bat edo bi lehenago bakarrik ematen zietala informazioa. Bisitaren egunean, presoak goizean biltzen dira. Kartzelariak bermatzen dute presoek IPSaren uniformeak daramatela, atxilotu administratiboek izan ezik; horiei IPSak onartzen duen arropa zibila eramaten uzten zaie. Tramite horien ondoren, presoak miatzen dituzte ikuskatze-makinekin, gero esku-burdinak jartzen zaizkie eta hanka-trabak jartzen zaizkie oinetan. Ondoren, bisita-gelara oinez eramaten dituzte, burdinazko xaflez estalitako barne-korridoreetatik. Bisitetan presoak areto angeluzuzen batean esertzen dira. Areto horrek berrogeita bat eserleku ditu alde banatan. Preso bakoitzaren aurrean kristalezko horma intsonorizatu bat dago, eta telefono-entzungailu bat, kristalezko manparaz bestalde dauden familiako kideekin hitz egiteko. Preso bakoitzak hiru senideren bisita jaso dezake. Eserlekuen artean oso tarte txikia dago, batez ere berrogei atxilotu baino gehiagori bisita egiten ari zaien laurogei pertsonatik gora daudela kontuan hartuta. Horrek mugatu egiten du presoek gai pertsonal edo familiarrez hitz egiteko duten aukera, intimitaterik ez baitute.

Horri dagokionez, Mohammad Khalafek bere esperientzia kontatu du:

"Presoari bere izena bisita-zerrendan dagoela jakinarazten zaionean hasten dira presoaren ohiko errituak. Presoa goiz esnatzen da prestatzeko, duxatzeko, bizarra egiteko, aurreko egunean garbitu eta lisatu duen IPSko uniformeak janzteko. Hori dena maite dituen pertsonekin elkartzen denean ahalik eta txukunuen ager dadin. Okupazioaren politika zapaltzaileenetako bati buruz ari da Khalaf: "Guardiek bisitarien zerrenda kategoriatan sailkatzen dute: A eta B, presoak eta maite dituzten pertsonak frutak eta barazkiak balira bezala. Ez dakigu nola hartzen den erabaki hau: preso honi bilobaren bisita jasotzeko baimena ematea, eta beste batzuei, berriz, eskubide hori ukatzea. Esaera zaharrak dioen bezala: "Hondamendirik larriena barrea eragiten duena da". IPSk aitona-amonek beren biloba espetxeratutako bisitatzeko baimena ematen du, baina, aldi berean, bilobei ukatu egiten diete beren aitona-amonak bisitatzea. Hori da IPSak presoaren aurka hartu eta erabiltzen duen errepresio eta arrazismoaren neurrietako bat".⁴⁶


Maite dituenak bisita-gelan sartzen direnean, kristalezko hesi fisiko eta psikologiko lodi batek kartzelaratutako senideengandik bereizten ditu. Bisitaren zain egon direnak konturatu dira ez dutela ukitzeko aukerarik izango. Azken batean, beiraren bi aldeetara kokatuta egonik, behartuta daude telefono esekien bidez komunikatzera. Gehienetan telefonoetako entzungailuak apurtuta edo erabiltezin egoten dira, eta horrek eragozpenak, nahasmen etengabea eta presoek eta haien senideek duten denbora urria galtzea eragiten du.

Mohammed Khalaf



Aretoaren antolaketaren eta diseinuaren irudi bat⁴⁷

Ofergo espetxeko gela baten plano arkitektoniko horizontala





1:100



1. Litera [180 cm x 80 cm].
2. Hainbat sekziotako armairu metalikoak [40 cm x 40 cm].
3. Konketa txikia [50 cm x 30 cm].
4. Metalezko hesi-sarea (garai bateko komun arabiarrek).
5. 10 cm-ko lodierako burdinazko atea, leiho bat, barroteak [40 cm x 30 cm] eta Ashnaf irekidura bat dituen.
6. Barroteak eta sareak dituen leihoa [80 cm x 100 cm].
7. Barroteak eta sareak dituen leihoa [150 cm x 100 cm].
8. Barroteak eta sareak dituen leihoa [50 cm x 80 cm].
9. 1 cm-ko lodierako bainurako atea, aluminio mehez egina.
10. Elikagaiak gordetzeko armairu metalikoak. Horien gainean, ur-irakigailu bat eta plaka elektriko bat daude.

Ofergo espetxeko gela baten plano arkitektoniko bertikala




B-B مقطع
Sekzioa

1:100



1. Litera [180 cm x 80 cm].
2. Hainbat sekziotako armairu metalikoak [40 cm x 40 cm].
3. 10 cm-ko lodierako metalezko atea, leiho bat, barroteak [40 cm x 30 cm] eta Ashnaf irekidura bat dituen.
4. Barroteak eta sareak dituen leihoa [150 cm x 100 cm].
5. 1 cm-ko lodierako bainurako atea, aluminio mehez egina.
6. Elikagaiak gordetzeko armairu metalikoak; gainean, ur-irakingailu bat eta plaka elektriko bat daude.

1. Espetxeetako guardiak zaintzeko gela.
 2. Atalaren sarrera.
 3. Kantina.
 4. Garbitegia + liburutegia.
 5. Espetxeeko gelak
 6. Dutzak.
 7. Liburutegia eta biltegia
 8. Goiko geletara sartzeko eskailera.
 9. Goiko gelekina komunikatzen duen metalezko zubia.
 10. Patioa [15 m x 9 m]
- Sabaia sare bidez itxita dago. Segurtasun-atea.



Espetxe Baldintzen Nazioarteko Araudia



Espetxe Baldintzen Nazioarteko Araudia

Giza eskubide eta printzipio askoren oinarri gisa, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren arabera, "gizaki guztiak aske eta duintasun eta eskubide berdinekin jaiotzen dira"⁴⁸, eta "inor ez da torturatuko eta ez zaio zigor edo tratu krudel, anker edo iraingarririk pairaraziko ere". Printzipio horiek nazioarteko beste hitzarmen batzuek berretsi dituzte, hala nola Eskubide Zibilen Nazioarteko Itunak⁴⁹, Torturaren eta Beste Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Degradatzaileen aurkako Konbentzioak⁵⁰ eta Genevako IV. Hitzarmenak.⁵¹ Gainera, nazioarteko babes eta hitzarmen kolektibo antzekoak onartu dira beren askatasunaz gabeturiko pertsonen kasurako ere. Atxilotze edo Espetxeratze Egoeran dagoen Edozein Pertsonarentzako Printzipio-Multzoa edo Espetxeratuen Traturako Gutxieneko Arauentzako Irizpideak (Mandea Arauak)⁵³. Guztiek nabarmentzen dute giza eskubideak errespetatzearen garrantzia eta horiek preso direnei ez zapaltzearen ezinbestekotasuna.⁵⁴ Hala ere, babes-corpus horrek ez du lortu espetxeen arkitektura eta eraikuntzarako arau sendo, argi eta berariazkoak ezartzerik. Horren ordez, atxilotuentzat eta haien ingurunearentzat kontuan hartu eta zaindu beharreko printzipio batzuk ezartzen ditu. Adibidez, presoak egokitze arau buruzko sekzioan, Mandela Arauek ezartzen dute presoak erabiliko dituela aurreikusitako eremu guztiek, eta bereziki ziega guztiek, osasun-baldintza guztiak bete beharko dituztela, eta arreta berezia jarri beharko zaiela baldintza klimatikoari eta, bereziki, metro karratuko aire kopuruari, gutxieneko azalerari, argiztapenari, berokuntzari eta aireztapenari.⁵⁵

Azpinarra berezia egiten du: "leihoek presoek argi naturalarekin irakurtzeko edo lan egiteko adinako handiak izan behar dute, eta aire freskoa sartzeko moduan eraiki behar dira, aireztapen artifiziala izan ala ez."⁵⁶

Mandela Arauak arkitektura eta kartzelen antolamenduaz gain beste eremu batzuetara ere hedatzen dira, besteak beste, preso bakoitzak "ohe bat izatea eta berau esleitzerakoan izara garbiak izatea... eta horien garbitasuna mantentzeko gutxieneko epe onargarrian aldatzea"⁵⁷ bermatzearen garrantzia. Arauek, halaber, gutxieneko komun kopuruaren garrantzia ere aipatzen dute.⁵⁸ Ildo beretik, honako hau diote: "IPSk, ohiko ordutegian, preso guztiei nutrizio-balio egokiak dituen eta egokiro prestatu eta zerbitzaturiko elikagaiak eskaini behar dizkie"⁵⁹. Presoek aisialdi- eta irakaskuntza-liburuz hornitutako liburutegia izateko eskubidea dutela esateaz gain,⁶⁰ gertaeren eta albisteen berri izateko eskubidea bermatu behar zaiela adierazten du, egunkariak eta aldizkako argitalpenak irakurri, irratia entzunez edo beste edozein bitarteko baliatuz.⁶¹

Era berean, Torturari Aurrea Egiteko Europako Batzordearen Bigarren Txosten Orokorren 51. artikulua hau dio: "Oso garrantzitsua da, halaber, presoek harreman egokia izatea kanpo-munduarekin. Batez ere, presoari bitartekoak eman behar zaizkio familiarekin eta lagun minekin dituen harremani eusteko. Gidalerro nagusiak kanpoko munduarekiko harremana sustatzea izan behar du helburu; harreman horren edozein muga segurtasun-arrazoi nabarmenetan edo baliabide-kontuetan oinarritu behar da soilik".⁶²

Israelgo okupazio espetxeek ez dituzte erabat betetzen arau hauek. Gaur egun, Israelgo Auzitegi Gorenaren epai batek IPS preso bakoitzaren bizi-espazioa 4,5 metro izatera irits dadin, komuna barne, espetxeen espazioa handitzera eta ziegetako preso-kopurua murriztera behartzen badu ere, potentzia okupatzaileak ez ditu arau horiek betetzen. Kartzelan preso kopurua mugatzen hasi bada ere, baina ez du prozesu hori amaitu.

Preso askok baieztatzen dute beren ziegak ez direla egokiak gizakientzat. Dokumentu honetako aurreko ataletan adierazi den bezala, presoak dauden ziegetan ez dago aireztapenik, eta, kasu askotan, leihoak intsektu eta karraskarientzako sarbide bihurtzen dira.

Israelgo okupazio-agintariak urteak daramatzate IPSrekin lanean presoek eskubide gehienak diru truk lor litezkeen pribilegio bihurtzeko, presoekiko betebeharrak saihesteko prozesuaren parte. Koltxoi, manta, buruko, haizagailu eta zapata-zorroen hornidura kartzeletako jantokietan saltzen diren produktu bihurtzen dira, presoek prezio bikoitzean eros ditzaten. Horrela, bada, IPSak zama hori presoek eta atxilotuen familien gain uzten du.⁶⁴ Presoek ematen zaien janaria da horren adibide, gaizki sukaldatzen delako eta kalitatea eta kantitatea ez direlako nahikoak. Hori dela eta, presoak elkartu egiten dira otorduak partekatzeke. Jana bildu ostean, espetxeko kantuan eros ditzaketen artikuluekin osatzen dute eta otorduak berriro prestatzen dituzte, elikagaien eskasia saihesteko.

Ondorioak eta emaitzak

Palestinako lurraldeen okupazio israeldarra hasi zenetik, potentzia okupatzaileak espetxe eta atxilotze-zentro gero eta gehiago kudeatzeko politika sistematikoa diseinatu du, eta horietako batzuk Mandatu Britainiarrekoak dira. Eraikinen ezegonkortasuna eta horietako batzuen diseinu ez praktikoa gorabehera, Israelgo okupazio-agintariak Palestinako preso politikoak atxikitzeke erabiltzen jarraitzen dute.

Israelgo okupazio-agintariak sistematikoki jarraitzen dute preso politiko palestinarren horien oinarriko giza beharrak asetzea ezinezko den lekuetan atxikitzen. Adibidez, Damongo espetxean, duela hirurogeita bost urte baino gehiago ukuilu eta tabako-biltegi gisa eraikitako egituran, gizon, emakume eta haurrak dituzte preso. Naqab espetxeko presoak kanpadendetan, karabanetan eta hormigoizko moduluetan giltzapetuta daude. Basamortuaren erdian labeak dirudite eta denda eta karabana horien antolaketa eta diseinuak instalazioen barruko tenperatura altua areagotzen du. Espetxe horiek ez dira zeharo desberdinak israeldarren gainerako okupazio-espetxeetatik, non atxilotu palestinarrek antzeko egoera gogor eta bidegabeak jasaten baitituzte.

Preso palestinarren atxikitzen dituzten guneek ez dute aireztapen egokirik ezta argiztapenik, eguzki-argiarekiko esposiziorik, forarik, ariketa egiteko espaziorik eta ikuseremu egokirik. Elementu horiek pilatuta, presoek maiz garatzen dituzte artikulazioetako min eta afekzio jarraituak, begietako afekzioak, arnas gaixotasunak eta larruazaleko osasun arazoak.

Okupazio-politikek zaildu egiten dute presoek eguneroko bizitza. Kartzelariak egunean bost aldiz sartzen dira geletan, zenbaketa egiteko, leihoen egoera horiek kolpatuz egiaztatzeke edo aldizkako edo bat-bateko miaketak egiteko. Horrek ez die espaziorik uzten presoek bizimodu finko batera egokitzen, eta, kasu askotan, eguneroko jarduerak zailtzen ditu, eguneroko bizitzako erritmoa aldatuz.

Israelgo okupazio-agintariak presoek eguneroko bizitzaren xehetasunik txikiak ere kontrolatzen dituzte, kemena desagerrarazi eta kontrol pertsonaleko sentsazio guztiak galarazteke. IPSak honako hauek kontrolatzen ditu: atxilotua bisitatzeko aukera duten pertsonen kopurua, ahaidetasun maila, zenbat argazki eduki daitezkeen, argazki horiek geletan non jarri behar diren, ikus daitezkeen telebista-kateen kopurua eta izaera, dutxatzeko orduak, eraman behar duten arroparen koloreak eta forma, ariketa-orduak eta xehetasun gehiago.

Argi dago Israelgo okupazio-espetxeetako eraikinen arkitektura eta diseinua ez dela kasualitatea. Aurreko ataletan adierazi den bezala, segurtasun-neurrien gehiegizko izaerak segurtasun-neurri huts behar luketenak presoak menderatzera bideraturiko helburu politiko argia duten neurri bilakatzen ditu. Okupazioko kartzeletako presoak zortzi metroko altueratik goragoko horma izugarri inguratuta daude eta horietan zaintza-kamerak eta alanbre arantzadunak dituzte. Forra gehienak burdinazko edo hormigoizko xaflez eginak daude, eta horiek eguzki-argia ziegetan behar bezala sartzea eragozten dute. Ondorioz, preso asko putzu sakonetan biziko balira bezala sentitzen dira, kanpoko mundutik erabat isolatuta.

Saiakera guztiak gorabehera, presoek azken urteotan lortu dute inguru sozial natural baten ahalik eta antzekoena sortzea. Beren ziegak gela bihurtzen saiatu dira, eta beren familien eta kanpoko bizitzaren oroitzapenez apaindu dituzte. Uste guztien aurka, gizaki izaten jarraitzen dute, eta giza emozio oro bizitzen eta sentitzen jarraitzen dute: senide baten edozein lorpenengatik edo senide berri baten jaiotzagatik izaten den poztasun sentimendua, maite dugun pertsona bat galtzeagatik izaten den tristura izugarria...

Espetxea, espazio gisa, palestinarren zigortzeko okupazio-politikaren parte da. Urte luzez preso palestinarren fisikoki atxikiak izatearekin asebate gabe, potentzia okupatzaileak espetxe-sistema presoek errepresioan oinarritutako eguneroko funtzionamenduko arkitektura zapaltzaile batez diseinatu du, bere zigor-politika zabalarenekin.

ADDAMEER Presoen Laguntzarako eta Giza Eskubideen Aldeko Elkartea (arabierazko kontzientzia) kartzela israeldar eta palestinarretan dauden preso politiko palestinarrei laguntzeko lan egiten duen Palestinako gobernuz kanpoko erakunde zibil bat da. 1992an sortua, preso politikoaren eskubideak defendatzen ditu nazioan eta nazioartean, eta tortura eta presoen eskubideen beste bortxaketa batzuei amaiera emateko lan egiten du, zaintza, legezko prozedura eta elkartasun-kanpainen bidez.

Addameerren ikuspegia: Addameerrek uste du garrantzitsua dela justizian, parekidetasunean, zuzenbide-estatuan eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako gizarte palestinar aske eta demokratikoa eraikitzea, autodeterminaziorako eskubidearen egikaritze ahalik eta zabalenean oinarrituta. Addameerren lana nazioarteko zuzenbidean jasotako giza eskubideen unibertsaltasunean sinestean oinarritzen da.

Addameerren programak:

1. Laguntza Juridikorako Saila: sortu zenetik, Addameerren laguntza juridikoaren lana erakundearen lanaren bizkarrezurra izan da, eta Addameerren abokatuek doako ordezkariak eta aholkulariak juridikoa eskaintzen diete ehunka atxilotu palestinarrei eta haien familiei urtero.

2. Dokumentazio eta Ikerketa Saila: Palestinako atxilotuen aurka egindako bortxaketak dokumentatzen ditu Addameerrek eta atxilotze-baldintzak gainbegiratzen ditu, espetxeetara aldizka bisitak eginez. Horrez gain, atxilotuei buruzko estatistikak eta informazio zehatzak biltzen ditu.

3. Defentsa eta presio Saila: presoen egoeraren inguruko urgentziarako adierazpen eta aldarriak argitaratzen ditu, nazioarteko ordezkariari eta komunikabideei informazioa ematen die eta bilanak norbanakoen kezak aurkezten ditu Nazio Batuen aurrean.

4. Prestakuntza eta Sentsibilizazio Saila: Addameerrek hiru mailatan sentsibilizatzen ditu bertako biztanleak presoen eskubideen inguruan: abokatu palestinarrek Israelgo auzitegi militarretan erabiltzen diren lege eta prozeduren inguruan prestatuz; presoek beren eskubideei buruz duten ezagutza areagotuz; eta giza eskubideen aldeko aktibismoa eta oinarritzko boluntariora indarberrituz, komunitateko aktibistekin lankidetzan estuan arituz.

- 1 Layan Kayed, Prison as Text. Majallat al-Dirasat al-Filastiniyya. 128 Udazkena 202:2021. https://www.palestine-studies.org/sites/default/files/mdf-articles/1_206-201.pdf.
- 2 Addameer Prisoner Support and Human Rights Association, The Annual Violations Report 2019, (Ramallah: Addameer Elkarteak, 94-93 ,(2019). https://www.addameer.org/sites/default/files/publications/v2020_online.pdf
- 3 Mandela Institutua, Aholkularitza Zentro Palestinarra eta Addameer Elkarteak, Fact Sheet. (Ramallah: Mandela Institutua, Aholkularitza Zentro Palestinarra eta Addameer Elkarteak, 2008ko uztailean).
- 4 Ofer eta Megiddoren espetxeek gain, haur preso palestinarrei eskainitako atal bat du Damongo espetxeak. Damongo espetxekeo haurren atala dokumentu honen eremutik kanpo badago ere, esan behar da haur preso bizi-baldintzak ez direla nabarmen aldatzen gainontzeko preso bizi-baldintzetatik. Damonen modulu guztiak zaharrak dira, hezetasunez beteak daude eta ez dute aireztapen natural egokirik.
- 5 Addameer elkarteak, Bortxaketei buruzko urteko txostena: Violations of Palestinian Rights in Israeli Prisons. (Ramallah: Addameer elkarteak, 34 , (2016). https://www.addameer.org/sites/default/files/publications/annual_violations_report_for_web.pdf
- 6 Addameer Elkarteak, The Annual Violations Report. (Ramallah: Addameer Elkarteak, 38 ,(2018). https://www.addameer.org/sites/default/files/publications/for_webtqrry_rnthkt_rnhyy_rnjlyzy.pdf
- 7 Addameer, The Annual Violations Report 92 .2019. Oharra: 2019. urtearen amaieran, atxilotuen espetxekeo argindarra konpontzeko etengabeko ahaleginak bere fruituak eman zituen, eta IPSk arazoa konpondu zuen.
- 8 Oheak burdinazkoak dira, zoruan eta hormetan torlojutuak daude eta bi solairutan pilatzen dira. Ohe bakoitzak burdinazko oinarri bat du, denborarekin herdoildu eta soinu jasanezinak egiten hasten dena. Oheak literak diren arren, ez dute segurtasuneko barandarik. "Literen ertzek babesik ez dutenez, presoak erori egiten dira batzuetan. Lo egiten duen bitartean mugimendu txiki batek presoaren erorketa eragin dezake. Izan ere, preso asko erori eta zauritu egiten dira", esan zuen Safa Abu Sneineh-ek.
- 9 Elyaa Abu Hijleh (preso ohia, 11 hilabeteko kondena bete zuen Damongo kartzelan) Addameer Elkartearekin egindako elkarrizketa batean, 2021eko uztailearen 7an.
- 10 Gelaxka guztiak, txikiak izanda ere, lehen aipatutako elementuak dituzte (adibidez, oheak, armairu txikiak, telebista).
- 11 Metro bat zabal eta latorrizko xaflez estaliriko korridore batek gelaxka guztiak zeharkatzen ditu. Korridorean zehar foretara joateko hainbat ate daude; beraz, presoek korridore horretatik pasatu behar dute foretara joateko.
- 12 3. ataleko foran burdinazko zenbait barra daude, presoek gimnasia egin dezaten. Baina barra horiek, presoek diotenez, ez dira egokiak.
- 13 Layan Nasir (preso ohia, 2021eko uztailearen 7an atxilotua eta Damongo espetxean berrogeita hamar egun igaro zituen) Addameer Elkartearekin egindako elkarrizketa batean, 2021eko maiatzaren 10ean.
- 14 Qasam Al-Haj, Four Female Prisoners, Four Liberated Prisoners: Stories of Freedom, Majallat al-Dirasat al-Filastiniy128 (udazkena 9-68:(2021). <https://www.palestine-studies.org/sites/default/files/mdf-articles/073-060.pdf>.
- 15 Potentzia okupatzaileak bertan behera utzi zituen Addameerrek eta beste giza eskubideen aldeko erakunde batzuek Khalida Jarrar askatzeko eta alabari agur esateko egindako lege-saiakera guztiak. Garai hartan, Jarrarrek ia bi urteko zigorra bete zuen, eta bi hilabete besterik ez zitzaizkion geratzen askatasuna berreskuratzeko.
- 16 Kayed, Prison as Text.
- 17 Ikuskapen-txandetan, preso gauza asko nahasten dira, liburuak eta koadernoak barne. Objektu horietako zenbait konfiskatzeak zaildu egiten dute preso bizi-baldintza. Adibidez, presoek burdinazko lata-estalkiak erabiltzen dituzte labanen ordean janaria mozteko, baina IPSren araudiaren arabera, gelaxka bakar batek ere ezin du halako estalki bat baino gehiago izan. Denborarekin, estalki horiek

- forma galtzen dute; hala ere, zaindarien estalki guztiak jasotzen dituzte, bat baino gehiago aurkitzen badute.
- 18 Shatha Hassan, "The Imprisoned Storyteller", The Prisoners (Blog), Palestinako Ikasketen Institutua, 2021eko martxoaren 17a: <https://www.palestine-studies.org/ar/node/1651060>.
- 19 Fathi Fleifel (psikoterapeuta) dokumentu honetarako Addameerrekin egindako elkarrizketan. 2021/12/16 2021
- 20 Emakume presoek lau jantzi-multzo (outfit) gorde ditzakete: bi negurako eta bi udarako. Neguan, armairuan neguko jantziak gordetzen ditu, eta udan, berriz, udako arropa.
- 21 "Israeli Prisons and Detention Centers", Wafa - Palestinako Albiste eta Informazio Agentzia, 2021eko urtarrilaren 5ean eguneratua, https://info.wafa.ps/ar_page.aspx?id=3800.
- 22 Argazki hau "Palestine Online" webgunetik hartu da.
- 23 Addameer elkarte, The Annual Violations Report 2019, 32. or. Eskuragarri hemen: <https://addameer.org/media/4287>
- 24 Argazki hau "Palestine Today" webgunetik hartua dago.
- 25 Layan Kayed, Prison as Text.
- 26 Gai honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Addameer Elkarte, Aggressions by Special Units of the Israeli Prison Service against Prisoners and Detainees during Transfers and Raids, (Addameer Association, 2014). https://www.addameer.org/sites/default/files/publications/special_units_of_the_ips.pdf.
- 27 Randi Odeh, "Memories of the Warden's Repression and the Faithfulness of Cats", The Prisoners (Blog), Palestinako Ikerketen Institutua, 2020ko maiatza ,13: <https://www.palestine-studies.org/en/node/1650077>.
- 28 Addameer, The Annual Violations Report 2019 ,114 -25.
- 29 Bilal Odeh, "Memories of Detention From the Month of September", The Prisoners (blog) Palestinako Ikerketen Institutua, 2020ko ekainaren 10a <https://www.palestine-studies.org/en/node/1650161>.
- 30 "Prison and Detention Centers", Addameer Elkarte <https://www.addameer.org/prisons-and-detention-centers>.
- 31 Ameer Makhoul, "On Prison Memories and the Playful Breeze", The Prisoners (blog) Palestinako Ikerketen Institutua, 2020ko uztailaren 8a. <https://www.palestine-studies.org/ar/node/1650309>.
- 32 Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Addameer Elkarte, Opened - Books on Cuffed - Hands: The Cultural and Educational Life of Palestinian Political Prisoners in Israeli Prisons and Detention Centers. (Ramala: Addameer Elkarte, 2020). <https://www.addameer.org/sites/default/files/publications/fullwithcover.pdf>
- 33 Awad Rujub, "An-nutaf al-muharaba: Wasilat al-asrasal-filastnkn llinjm. [Kontrabandoaren esperma: Palestinako presoek haurrak izan ditzten", Al Jazeera Media Network (2014ko abenduaren 11). <https://shortest.link/8ErY>.
- 34 Raafat-en esanetan politika horrek denbora bat iraun zuen presoen familiei IPSk haur horiek bisitetara eramaten utzi baino lehen.
- 35 Rafat-ek ere aipatu zuen ezen, nahiz eta estatu okupatzaileak kontrabandoaren espermaren bidez jaiotako haurrak onartzeari uko egin, Rafat Maarouf-en lehen semea kartzelan sartu ahal izan zela presoetako baten akats bati esker, izan ere "Amer" izenare grafia familiako beste kide baten izenaren antzekoa baita.
- 36 Arazo hori da presoen arazo iraunkorretako bat. Urteetan zehar, IPSak lortu du presoek eskubide ugari pribilegio ordaindu bihurtzea, presoek kontura erosi behar direnak, besteak beste, haizagailuak, platerak, koilarak, eltzeak, burukoak, maindireak eta bestelako gauzez osaturiko zerrenda luze bat.
- 37 Ameer Makhoul, "Warmer than the Annual Average [Temperature]", Prisoners (blog), Palestinako Ikasketen Institutua (2021eko abuztuaren 6a). <https://www.palestine-studies.org/en/node/1651505>.
- 39 Albisteen eta Informazioaren Palestinako Agentzia Wafa.

40 Ofergo espetxeko komun guztiak lurrzean zuloa duten komunak dira, atal sortu berrietako komun batzuk izan ezik. Azkenaldian, IPSk modulu berri bakoitzeko ziega batean komun-ontzi bat instalatzen hasi da, osasun-arazoak dituzten presoek erabil dezaten, izan ere, horientzako berebiziko arazo bilaka liteke markaturik euren beharrak egitea.

41 Mais Abu Ghosh, "Amid Cruelty, I Saw A Brighter Tomorrow", Prisoners (blog), Palestinako Ikasketen Institutua (2021eko otsailaren 17a). <https://www.palestine-studies.org/en/node/1650999>.

42 Makhoul, "On Prison Memories and the Playful Breeze".

43 IPSk hainbat preso zigortu ditu, eskuoihalak helburu horretarako erabiltzen segitzeagatik, trikimailua aurkitu zuten arte.

44 Esan behar da IPSren bidez familiek noizean behin argazkiak ematen dizkietela presoei, baina onartzen diren argazkien kopurua mugatua da. Batzuetan debekatu egiten dute zenbait argazki sartzea, segurtasun-eremuetan aterata daudela, martirien irudiak dituztela edo beste edozein kontu aitzakiatzat hartuz.

45 Raafat al-As'ous, "The Mother Who Hid Her Pain to Keep Her Imprisoned Soniling Son", Prisoners (blog) Palestinako Ikerketen Institutua, (2021eko abenduaren 9a). <https://www.palestine-studies.org/en/node/1652134>.

46 Mohammad Khalaf, "Rituals of Visitation and Postponed Embraces", Prisoners (blog), Palestinako Ikerketen Institutua (2020ko uztailaren 29a).

<https://www.palestine-studies.org/ar/node/1650424>.

47 Irudi hau alresalah.com -etik hartua dago.

48 Nazio Batuen Batzar Nagusia. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (DUDH). New York: Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1948: Hitzaurrea; 1. artikulua eta 5. artikulua.

49 Nazio Batuak (Batzar Orokorra). 1966. "Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna". Treaty Series 999 (abendua): 7. artikulua.

50 Nazio Batuen Batzar Nagusia, Torturaren eta Beste Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Degradatzaileen aurkako Konbentzioa, 1984ko abenduaren 10a, Nazio Batuak, Treaty Series, 1465, 85. or.; hitzaurrea eta 2. artikulua; hemen eskuragarri:

<https://www.refworld.org/docid/3ae6b3a94.html>,

51 Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea (CICR), Guda-Garaian Zibilak Babesteko Genevako Hitzarmena (Genevako Laugarren Hitzarmena), 75, 1949 UNTS 287; 85. artikulua

<https://www.refworld.org/docid/3ae6b36d2.html>.

52 NBERen Batzar Orokorra, edozein atxilotze- edo espetxeratze-motaren menpe dauden pertsona guztiak babesteko printzipio-multzoa: Batzar Orokorra 1988ko abenduaren 9an hartutako hartutako ebazpena, A/RES/173/43, 1. printzipioa, hemen eskuragarri:

<https://www.refworld.org/docid/3b00f219c.html>

53 NBERen Batzar Orokorra, Presoen Tratamendurako Nazio Batuen Gutxieneko Arauak (Nelson Mandela arauak): Batzar Orokorra onartutako ebazpena, 2016ko urtarrilaren 8a, A/RES/175/70, 1. printzipioa, <https://www.refworld.org/docid/5698a3a44.html>.

54 Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus ACDH PRIrekin eta Espetxe Ikasketen Nazioarteko Zentroarekin landutako, A Pocket Book of International Human Rights Standards for Prison Officials (New York eta Geneva: 2004).

55 Nelson Mandela arauak, 10. printzipioa.

56 Nelson Mandela arauak, 11(a) printzipioa.

57 Nelson Mandela arauak, 19. printzipioa.

58 Nabarmentzekoa da Torturari Aurre Hartzeko Europako Batzordearen 10. txosten orokorraren 31. artikulua honako hau ezartzen duela: "Emakumeen berariazko higiene-beharrak behar bezala bete behar dira. Oso garrantzitsuak dira osasun- eta garbitasun-instalazioetara erraz iristea, odolez zikindutako gaiak modu seguruan garbitu ahal izatea eta higiene-gaiez, hala nola konpresak eta tanpoiak, hornitzea. Oinarrizko behar horiek ez asetzeak tratu degradatzailea ematea leharke bere horretan". Izan ere, horrek argi eta garbi kontrajartzen ditu israeldarren okupazio-espetxeetako

praktikak; askotan, emakumei, behar dituztenean dutzak erabiltzea ukatzen zaie, beren ziegetatik kanpo baitaude. Beraz, sekzioak itxitakoan ezinezkoa zaie dutzak erabiltzea.

59 Nelson Mandela arauak, 1)20) printzipioa.

60 Nelson Mandela arauak, 40. printzipioa.

61 Nelson Mandela arauak, 39. printzipioa.

62 Torturari Aurre Hartzeko Europako Batzordearen 2. txosten orokorra, 51. artikulua.

63 Addameer elkarteak, The Annual Violations Report. (Ramallah: Addameer elkarteak, 2018).

https://www.addameer.org/sites/default/files/publications/for_webtqrry_r_lnthkt_lnhyy_lnjlyzy.pdf.

64 Addameer elkarteak, Preso palestinarren esplotazio ekonomikoa. (Ramallah: Addameer Elkarteak, 2016). [https:// www.addameer.org/sites/default/files/publications/final_report_red_0_2.pdf](https://www.addameer.org/sites/default/files/publications/final_report_red_0_2.pdf)

Jar zaitez gurekin harremanetan:

Helbide elektronikoa: info@addameer.ps

Tel: +972 (0)2 296 0446/+972 (0)2 297 0136

Fax: +972 (0)2 296 04 47

Helbide postala: PO Box 17338 Jerusalem

Ramallahko egoitza:3 Mowsa Tawasheh Street,Bldg. Sebat, 1st floor, Suite 2, Ramallah, Rafiden enparantzatik hurbil

ADDAMEER (Arabic for conscience) Prisoner Support and Human Rights

Association is a Palestinian non-governmental, civil institution that works to support Palestinian political prisoners held in Israeli and Palestinian prisons. Established in 1992 by a group of activists interested in human rights, the center offers free legal aid to political prisoners, advocates their rights at the national and international level, and works to end torture and other violations of prisoners' rights through monitoring, legal procedures and solidarity campaigns.

Addameer's Vision: Addameer believes in the importance of building a free and democratic Palestinian society based on justice, equality, rule of law and respect for human rights within the larger framework of the right to self-determination. Addameer's work is based on a belief in the universality of human rights as enshrined in international law.

The Programs of Addameer :

1. **Legal Aid Unit:** Since its founding, Addameer's legal aid work has formed the backbone of the organization's work, with Addameer's lawyers providing free legal representation and advice to hundreds of Palestinian detainees and their families every year.
2. **Documentation and Research Unit:** Addameer documents violations committed against Palestinian detainees and monitors their detention conditions through regular prison visits, and collects detailed statistics and information on detainees.
3. **Advocacy and Lobbying Unit:** Addameer's advocacy work is aimed primarily at the international community, with the unit publishing statements and urgent appeals on behalf of detainees, bringing international delegations and the media, and submitting reports and individual complaints to the United Nations.
4. **Training and Awareness Unit:** Addameer raises local awareness of prisoners' rights on three levels: by training Palestinian lawyers on the laws and procedures used in Israeli military courts; by increasing the prisoners' own knowledge of their rights; and by reviving grassroots human rights activism and volunteerism and working closely with community activists.

Contact Us:

Email: info@addameer.ps

Tel: +972 (0)2 296 0446/+972 (0)2 297 0136

Fax: +972 (0)2 296 04 47

Postal Address: PO Box 17338 Jerusalem

Ramallah Office: 3 Mousa Tawasheh Street, Sebat Bldg.,
1st Floor, Suite 2, Ramallah (near Rafiden Square)